


FRUNIZTARRAK LEN TA ORAIN FRUNIZ, SU TIERRA Y SUS HOMBRES



OLAZAR ETA URIBE'TAR MARTIN'EK

**FRUIZTARRAK LEN TA ORAIN
FRUNIZ, SU TIERRA Y SUS HOMBRES EN LA
HISTORIA**




OLAZAR ETA URIBE'TAR MARTIN'EK

Lege Gordailua: BI-2541-00

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Flash Composition, S. L.
Alameda Recalde, 6 - 48009 BILBAO

FRUIZTARRAK LEN TA ORAIN

FRUNIZ: SU TIERRA Y SUS HOMBRES EN LA HISTORIA



Ate ederraren arku erromanikoan (1.200 urtea) age-buru bi: ezkerrekoan erregea, alboetan gotzain bi eta alborago, ezker-eskoian, musiku bi.

Olazar eta Uribe'tar Martin'ek

1.- AURKEZPENA.....	11
1.1. Ikasi daigun gure edestia (historia)	11
1.2. Nondik ikasi.....	11
1.3. Lenengo zazpireun urteak utsik.....	12
1.4. Liburu au zergaitik.....	12
1.5. Izkuntza	13
2.- IZENA ETA TOKIA	15
2.1.- Izena	15
2.2.- Tokia	15
3.- BIZIKERA ILLUNA: ZAZPI GIZALDIAK	18
4.-ERRIA SORTZEN	22
4.1.- VIII gizalditik XII'era	22
4.2.- Fortunio Fruniz.....	22
4.3.- Fortunio'ren illobia?	22
4.4.- Abereen aldia	23
4.5.- Olak eta ikatza	24
4.6.- Ermitak eta kofradiak.....	25
4.7.- Garia eta sagarra.....	25
4.8.- Etxeko jauna	25
4.9.- Erria sortuta	26
5.- AGERPEN ZIURRAGOAK	28
5.1.- Salbadore: Eleiza aundiago bat	28
5.2.- Eleizpeko idazkia	29
5.3.- Ate ederra	29
5.4.- Atzeko ate-ondoan	30
5.5.- Torrepeko arkuak	30
5.6.- Erremedio'ko ama	31
5.7.- Amalaugarren gizaldia, txiroa eta larria.....	31
5.8.- Feudoak eta jauntxuak	32
5.9.- Iru uri inguruan	32

5.10.- Uri-auzoak	32
5.11.- Olak indar barria	33
6.- ERRIA SENDOTUTA (XVI GIZALDIA)	36
6.1.- Gaur daukagun eleizea egiten	36
6.2.- Santuen lekuak	37
6.3.- Kurutze-eleizatzua.....	38
6.4.- Izurriteak	38
6.5.- Jauntxuengandik aske	39
6.6.- Agiri batzuk.....	39
7.- SAN JUSTO'KO KANPAIA (XVII GIZALDIA).....	41
7.1.- Baseleiza konpontzen	41
7.2.- Sakristia sutan	42
7.3.- Artoaren gizaldia	42
7.4.- Karabiak lanean.....	43
7.5.- Laietak	43
7.6.- Ikaztegiak	44
7.7.- Basozaiñak.....	44
7.8.- Teilleriak	44
7.9.- Beste taberna bat?	45
7.10.- Udal-Batzaren etorriak	45
8.- ERRIA OBETO ERATZEN (XVIII GIZALDIA).....	48
8.1.- Irazpen (fundaziño on bat)	48
8.2.- Osagillea errian	48
8.3.- Amarrenak aurrera.....	49
8.4.- Gaztañea saltzen	49
8.5.- Indabea amarrenen artean	50
8.6.- Txakoliña.....	50
8.7.- Jabetzaren aldakuntzak	50
8.8.- Abere-azokea.....	50
8.9.- Diego-Aretxeta basoak	51
8.10.- Bideak eta zubiak	51

8.11.- Ardaua tabernan!	52
8.12.- Kurutzea geldi edo jasota	53
8.13.- Abadeai agindu barriak	53
8.14.- Alkateak	53
8.15.- Txiroen legeak	54
8.16.- Eskolak eta maisuak	54
9.- BESTE GIZALDI LARRI BAT (XIX)	57
9.1.- Olak eta errotak larriunean	57
9.2.- Baserria oraingoz aurrera	59
9.3.- Uriko semeak eta ugazamak	59
9.4.- Eleizea eta baseleizen ondasunak kentzen	60
9.5.- Aberedunen anaidia (hermandad)	60
9.6.- Arrobiak (kanterak) Botiola'n eta Berranko'n	61
9.7.- Baserrietako zorrak	62
9.8.- Baserrien egiturea	62
9.9.- Politikazko larritasuna	63
10.- GURE ALDIKO GAUZAK (XX GIZALDIA)	68
10.1.- Lengo jauntxuen ordez	68
10.2.- Telleria ta Taberna zarra bota	69
10.3.- Eleizako ate ederra	70
10.4.- Gudaldi negargarria	71
10.5.- Eleizea eguneratzen	72
10.6.- Eleiz-oiturak eguneratzen	74
10.7.- Abade-etxe barria	75
10.8.- Uri-auzoen arazoa	78
10.9.- Baseleizak gaur	79
10.10.-Erri-zerbitzuak gaur	80
10.11.-Abadeak	83
10.12.-Alkateak	84
IDAZLEAREN IDAZ-LANAK	93

1.- AURKEZPENA

1.1.- Ikasi daigun gure edestia (historia).

Joan diran gizaldietan zelan bizi izan garan jakiteko, beti goitik ibilli dira gure irakasleak eta batez be España'ko jazokizunak agertu dauskuez, euren erara agertu be. Baiña guk aurreko urteetan gauzak zelan izan diran jakiteko geure erria artzen dogu lenengo oiñarri lez, geure Fruiz. Or aurkituko dogu gaur jazoten diran gauza asko zergaitik olan diran jakiteko argia.

Eta edestia, historia, irakaslerik onena da. Aurkitzen doguzan oke-rrak zuzendu egin bear doguz eta aurkitzen doguzan bide artezai jarraitu. Ondo esana da, bere edestia (historia) ez dakienak, barriro bizi bear daulala edesti ori.

1.2.- Nondik ikasi.

Edesti aundiak ba-daukoz bere liburu aundiak ikasteko, baiña gure edesti txikiak ez dauko liburu txikirik be. Oso gitxi beintzat.

Dana dala, nik zerbait aurkitu dot. Ona emen zer.

Jakingarririk geien emon daustana, Ricardo Fernandez'en "Morga y Fruniz" deritxon liburua da. Gauza batek arritu nau liburu onetan eta auxe da: Agiritegi edo artxiboetan millak agiri zar dagozela Fruiz'eri buruz, baiña gutzat betiko lotan dagoz. Ez doguz ezagutzen. Liburu onek agertzen dauz asko. Argazki (erretratu) batzuk ortik artuak dira.

Liburu au ederra da baiña irakurteko oso gatxa, eta ez erdera dagoa-lako beste barik, batez astuna dalako, irakurteko gatxa dalako baiño. Or dagozan barriak nik eio egingo dodaz gure erritarrai eskintzeko.

Beste liburu bat, arlo baterako, Jose Maria Mutiloa'ren "La desamortización en Bizkaia" da. Emendik artu al izan dot gure erriko eleizondasunak zeintzuk izan ziran eta zelan galdu ziran.

Irugarren liburu lez neure "Zu Martin". Aldi baterako balio dau, baita beste neure liburu bat, "Mungia ta mungiarrak" deritxonak be laguntzen dau.

Baiña antxiñako oiturak jakiteko asko lagundu dauste Anes Arrindarren liburuak; jakiña, erriratu egin bear.

Orreik dira ba, liburu onen iturriak, baiña orrein gaiñera asko laguntzen dabe errian diran toki-izenak, oroitetxe edo monumentuak eta esaerak eurak.

1.3.- Lenengo zazpireun urteak utsik.

Oso gitxi agertzen da gure erriari buruz Kristo'ren jaiotza-urtetik zortzireungarren urtera arte.

Zazpi gizaldi orreitan gauza asko jazo ziran emen gure errian edo lur onetan, zalantza barik, baiña ez dago ezelako agiririk, ez oroitetxe edo monumenturik. Ez ete eben ezer itzi antxiñako gure aurretiko areik? Nik baietz uste dot, baiña billaketa-lan audi bat dago egin barik. Gure menditxuetan aurkitu al izango litzakez dolmenak edo antxiñako illobiak edo eurak erabilten ebezan lanerako tresnak (aizkorak, edo atxurrak edo aiztoak...) baiña dolmen orreik ba'dagoz be emen iñok ez dau egin billaketarik. Berriaga mendian agertu dira olako gauzak, zergaitik ez emen? Nire ustez billaketa egin barik dagoalako.

Dana dala zazpi gizaldi orrei atal bat eskiñiko dautsegu, inguruko agiriak, esaterako Gerekiz'koak, kontuan doguzala.

1.4.- Liburu au zergaitik.

Liburu onen elburu nagusia, fruizztarrai antxiñako barriak emotea da, baiña beste zio batzuk be ba-daukadaz idazteko: Eskatu egin daus telako, beste askoren artean Donostii'ko Gotzain dogun gure Juan Mari Uriarte'k.

Gaiñera zurrumurru lez entzun dot Fruitzarrak aurtengo zemendia-ren 11n. egunean abade egin nintzala 50 urte diralako omenaldia egin nai daustela. Ez naz olako omenaldiak artzen zalea, gugaz pazientzia euki dauan erriak bear dau omenaldia, ez guk. Dana dala, ez noa eze-tzik esaten. Ba-dago maitasuna eta alkartasuna Fruitzarren eta nire artean, baita 22 urtetan alkarregaz fedea bizi izateak emoten dauan biotz-berotasuna. Nik, esker onez eta opari lez eskiñiko dautset liburu au. Ez dakit egun orretarako amaituko dodan. Gura neuke. Beioa libu-ru onegaz batera nire maitasuna ta esker ona.

1.5.- Izkuntza.

Fruitzarrak geienak, ia danak, eukaldunak dira baiña asko ez dagoz oitura euskeraz irakurten, eskolan erderea baiño ez ebelako ikasi, zori txarrez. Orregaitik, guztientzat, atal guztiai laburpen bat egingo dau-set erderaz.

Eta euskera bera Bizkai'koa eta ulerterreza izango da, atxerik nas-tean sartu barik. Ori izan da beti nire bidea eta ortik jarraituko dot bizi nazen artean, euskera garbia, ulerterreza eta atxe bakoa erabilten.

La historia es maestra de la vida, pero debe comenzar desde el entorno en que vivimos, no como nos enseñaron en las escuelas, desde grandes alturas y manipulada.

Debemos, pues aprender la historia de nuestro pueblo, pero ¿dónde? ¡Apenas hay nada escrito!

He sacado muchos datos del Libro “Morga y Fruniz” de Ricardo Fernández. Es un libro cargado de datos. Realmente muchísimos documentos referentes a Fruniz duermen en los archivos, también antiguos. Pero este libro es difícil de digerir para nuestros lectores. Trataré de moler este trigo duro. Para estudiar la expropiación de los bienes de nuestra iglesia de Fruniz me he valido del libro titulado “La desamortización en Vizcaya” de Jose María Mutiloa. Algo pueden ayudar mis dos libros “Zu, Martin” y

“Mungia ta mungiarrak”. Mucho me he servido de varios libros de Anes Arrinda y sobre todo de topónimos de Fruniz, cargados de historia.

Apenas he podido encontrar datos de los primeros siete siglos de nuestra era. ¡Y tiene que haber datos! Tenemos dos referencias que nos lo confirman: las lápidas de Gerekiz y los monumentos antiquísimos de Berriaga. ¡Cuantos monumentos, desde los dólmenes, habrá en nuestras colinas! Duermen porque nadie se mueve a investigar.

He tenido varias razones para escribir este libro. Primero la insistencia de mi amigo Mons. Uriarte, Obispo de San Sebastián. Además he oído que Fruniz me va a ofrecer un homenaje el día 11-11-2001 con motivo de mis 50 años de ministerio, de los que 22 he dedicado a Fruniz. No soy amigo de homenajes, pero no me he negado. Trataré de publicar este libro para esa fecha y les daré como obsequio y signo de gratitud. Estamos casi en septiembre, a 22 de agosto, y andaré algo apurado para llegar a tiempo. Si no llego, ese día haré la oferta.

Es la parroquia de Fruniz la que merece el homenaje por la paciencia que han tenido siempre conmigo y por la ayuda y colaboración que siempre me han ofrecido. Todo ello ha culminado en la Junta Parroquial actual que tanto colabora. Gracias.

Escribo en euskera pero hago resúmenes en castellano para los pocos Fruitztarras que no conocen nuestro idioma y para los que prefieren leer en castellano por no tener costumbre de leer en euskera. Mi euskera trata de ser fácilmente inteligible y no utilizo la letra hache que tantos males nos ha traído sin ninguna utilidad.

2.- IZENA ETA TOKIA

2.1.- Izena.

Gure erriak Fruiz dauka izena. Ez dakigu argi izen onek zer esan gura dauan eta nondik datorren.

Bear ba'da Fortunio izango zan erriaren sortzaillea eta ortik etorri leiteke Fortuniz edo Fruniz, baiña ez da gauza ziurra.

Gaiñera azkeneko -iz orrek zer esan nai dauan be ez dakigu. Badauko euskerearen usaiña eta erri askok dauke azken ori. Urrin joan barik, Gamiz, Gerekiz, Laukariz, Laukiniz, Urduliz...

Beste itaun bat izenari buruz: Fruniz ala Fruiz? Ba-dakit Euskal-tzaindiak “Fruiz” erabiltea eskatzen dauana, nik naiago neuke “Fruniz”, baiña bego Fruiz.

Iñok ez dagiala uste izan orregaitiño, “Fruniz” erderaz dala eta “Fruiz” euskeraz. Ez. “Fruniz” euskeraz da eta berbak erabilliaz gas-tau egiten diralako galdu da “n” ori. Idazkeran ez da zertan kendu.

2.2.- Tokia.

Lenengo Bizkaiaren erdian dago Fruiz. Bizkai'ra beranduago sartu ziran Durango-aldea ta Enkarterria, baiña asierako Bizkaia'n, nuk-leoan, daukagu gure erria eta lurralte oneri ogi-lurra edo “tierra de pan sembrar” esaten eutsoen eta Bizkaia'n ain garrantzizkoa izan dan bide zarretik Larrabetzu'tik, Gerekiz'tik Gernika'ra doan bidetik ur-urrean dago.

Ez daukagu urrean mendi aundirik, Sollube bera be ez da ain aundi-a, baiña bai menditxiki edo muiño asko ta politak. Orregaitik lurralde egokia da zugatzak azteko, abereak zaintzeko eta soloak lantzeko.



Lepoti zubia. Gaur ez dauko arkurik. Orain tsu zabalago egin dabe eta 1983n. urtean urio-leak apurtu eutson.

Lur oneri onurea ta indarra emoteko ura daukagu ugari. Lepoti'ko Zubipetik doaz, soloak eta basoak buzti ondoren, Arrieta'tik, Errogot'i'tik eta Morga'tik datozen errekatxuetako urak.

Erreka oneik garrantzi aundia dauke gure edestian, ez lurra asetzan dabelako beste berik, oleak, errementariak eta errotak erriari aberastasun aundia emon dautselako baiño.

Benetan pozgarria da ortik sortzen dan inguruko orlegitasuna, alde guztietan ikusten dogu berdetasun askotarikoa.

Egurats edo klimeari begira be toki oso egokia da: uda epelak eta neguak ez ain otzak eukiten doguz. Paraiso txiki bat da gure ingurua.

El nombre de nuestro pueblo, Fruniz, según dicen algunos entendidos, proviene de su fundador Fortunio y la “iz” final tampoco se sabe a ciencia cierta lo que significa, aunque es muy frecuente en topónimos cercanos: Gamiz, Gerekiz, Laukariz, Laukiniz, Urduliz.

Podríamos preguntarnos si debemos escribir Fruniz o Fruiz, aunque en lenguaje hablado siempre se dice Fruiz. Euskaltzaindia recomienda que se escriba Fruiz, pero no me gusta mucho esa escritura. De todos modos debe quedar claro que no se puede decir que Fruniz sea nombre castellano y Fruiz euskaldun. Ambos nombres son euskaldunes.

Nuestro pueblo ocupa un lugar céntrico en la Bizkaia primitiva y nuclear, llamada “tierra de pan sembrar”. Más tarde formaron parte de esta Bizkaia el Duranguesado y las Encartaciones.

Apenas tenemos montes elevados sino muchas y bellísimas colinas que son muy aptas para riqueza forestal, ganadería y agricultura.

Tiene el pueblo abundancia de riachuelos que fertilizan los campos. Son arroyos que provienen de Arrieta, Rigoitia y Morga y sus aguas se reunen para pasar bajo el puente de Lepoti, a excepción del riachuelo que riega las huertas de Batiz, Lotina y Botiola.

Estos riachuelos han posibilitado la instalación de ferrerías y molinos que tanto han colaborado al bienestar económico.

Fruto de las abundantes lluvias y de los ríos es el paisaje verde muy variado y bello, con un clima muy suave que hace del pueblo un pequeño paraíso. No sé si lo apreciamos suficientemente.

3.- BIZIKERA ILLUNA: ZAZPI GIZALDIAK

Gauza gitxi dakigu lenengo zazpi gizaldiai buruz. Liburuak ez ziran idatzi eta gaurkoak be ez diñoe gauza aundirik.

Ba-daukaguz oroitarri bi garrantzi aundikoak: Gerekiz'ko illarria eta Fruiz'koa.

Gerekiz'koak idazkia dauka: Te. Semproniae conjugi suae posuet memoriam Cons CCCC.

Berba gitxitan ainbat gauza diñoz: Ortik igaro zan erromatar bateri laugarren gizaldian, emaztea il jakon, Sempronia zan onen izena eta bere senarrak illobia egin eutson gomutaki lez. Batzuk “memoria” kristiñauen berbea zala diñoe eta gizon ori fededuna zala, baiña ez da ain ziurra. Eta urtea be ba-dakar, kontzulen aldiko lareungarren urtea. Gutzat urte ori gure 400n’ agaz batera antzean doa.

Gure eleizpean be ba-dago beste illarri bat, eta au zarragoa da, Kristo jaio baiño urte batzuk lenagokoa eta erromatarren girokoa.

Fruiz'en be erromatarrak egon ete ziran ba?

Ez. Baiña emendik ara joandakoak ango oiturak ekarri ebezan eta oiturai jarraituz, illobia egin ebanak, gorpuak erre eta auts biurtu ondoren, gaiñean arri au ipiñi eutsan. Gorpuak erre egiten ziran irugarren gizaldiaren aurretik. Konstantino Enperadoreak kendu eban erretze ori eta arrezkero gorpuak osorik lurperatzen ziran.

Baiña nortzuk joaten ziran emendik ara, erromatarren artera? Geienak sal-erosleak eta gudariak.

Erromatarren gudarostean 6.000 euskaldun ebiltzazan 200 urtetan eta leku askotan. Euskal-izenak aurkitu dira Alemania'n eta Inglaterra'n ildako gudarien artean.



Arri landu au eleizpean dago eta daukan markea Tiberio 'ren aldikoa da, Kristo baiño urte batzuk lenagokoa.

Zergaitik eta zertarako joaten ziran jakin gura ba'dogu auxe esan geinke: Dirua irabazteko, Erroma'ko uritarrak izatea eta euren eskubideak lortzeko, gudaritza amaitzen zanean, bakotxari lurralde bat emoten eutsoen eta bizitza guztirako irabazia.

Nik ez daukat zalantzarik 6.000 gudari orrein artean Fruiz'tarrak beizango zirala bat baiño geiago.

Kristiñautasuna be zortzigarren gizaldia baiño lenago egoan emen. Orretarako monastegi batetik lekaide edo monjeren bat etorriko zan Jesus'en Barri Ona ekarten. Ortik sortu zan betiko, lekaide areri esatean eutsoen izena: Abadea. Gaur be izen orrek jarraitzen dau.

Zortzigarren gizaldia ezkero laster sortu ziran ermitak be, batez beilletak ospatzeko eta kristiñauen gorpuak lurperatzeko, lenengo ermita-barruan, gero alboan eta gero urrintxuago.

Gizaldi onetan irakatsi euskuen erromatarrk lurgintza obeto egiten. Ortik euskeraz latiñetik artutako izen asko: Pagoa, kipulea, kerizea, soloa eta abar.

Ba-dagoz ba orduko erri-bizitzan be argitxu batzuk.

Pocas noticias tenemos de los siete primeros siglos. Los libros de entonces son inexistentes y los sabios actuales tampoco añaden mucho.

Recordemos dos estelas funerarias de aquellas fechas: La de Gerekiz que un esposo desconocido dedicó a su esposa Terencia Sempronia el año 400 según dice la fecha y una estela sin inscripción que tenemos en el pórtico de Fruniz y es, aproximadamente, contemporánea de Jesucristo.

Estas estelas nos cuestionan la presencia romana entre nosotros. Por Gerekiz ciertamente pasó aquel esposo, pero la estela de Fruniz no indica presencia alguna, posiblemente alguno de Fruniz de los que estuvieron por Roma o su imperio lo pudo poner sobre las cenizas de algún familiar imitando lo visto en el Imperio. Entonces, hasta Constantino, se quemaban los cadáveres y después de Constantino se sepultaban cadáveres enteros.

Pero ¿consta que de Euskalerria iban algunos a Roma o su imperio?

Es cosa comprobada que en el ejército romano había 6.000 vascos y algunos nombres vascos se han encontrado en zonas lejanas como Alemania o Inglaterra.

También podemos preguntar por qué y para qué iban. La respuesta es fácil: Por el sueldo, por llegar a tener los derechos de ciudadanos romanos y por una jubilación con propiedades que daban a los soldados retirados.

Entre los 6.000 soldados a lo largo de dos o tres centurias, sin duda, hubo algunos de esta tierra que hoy es Fruniz.

En estos siglos entró también el Evangelio a estas tierras, traído sin duda por monjes a los que llamaron abades como llaman a los sacerdotes de hoy.

Hacia fines de estas fechas se erigieron las primeras ermitas, hoy desaparecidas como edificios, que sirvieron de cementerios para los cristianos.

También se introdujeron grandes mejoras en la agricultura como atestiguan palabras latinas como soloa, pagoa, kipulea, kerizea...

Hay pues pequeñas luces que iluminan aquella época oscura de nuestra historia.

4.- ERRIA SORTZEN

4.1.- VIII gizalditik XII'era.

Lenengo zazpi gizaldi orreik igaro-ondoren, gure edestian beste bost gizaldi datozen, apur bat argitsuagoak, baiña oraindiño gauzak zeatz agertzen ez diranak. Kondaira edo leienda-erria esango dautsagu oneri.

4.2.- Fortunio Fruniz.

Aldi onetan agertzen da kondaira edo leienda-giroan Fruiz'en fundatzaille dan Fortunio Fruniz. Gizon onen barriak ba-daukaguz, ain ziurrak ez ba'dira be: Zortzigarren gizaldikoa da eta beronek emon ei eutson erriari izena. Onein ustez Fruniz "Fortuniz"tik dator.

Gizon audi onek gudaldi bat izan eban Bakio'n Asturias'tarren aurka eta irabazi egin eutsen.

Andik etorri zanean etxe bat egin eban emen eta Asturizaga ipini eutson izena. Ortik dator gaurko Astrotza etxearen izena. Eta antxe alboan, Berrango'ko arrobitik urean egin eban bere torrea, Aldai baiño gorago. Ondakiñak be ei dagoz or. Geroago Torre ta Aldai bat egin ei ziran eta Torrealdai abizena sortu. Ori esan eustan Isisi'ko Jose Mari faille lamenetarrak. Jakituna zan au.

4.3.- Fortunio'ren illobia?

Fruiz'ko gure eleizeak oindiño gauza asko daukaz agertzeko, baiña ikusi daigun zerbait.



Illobi bat estalduta agiri da. Ortik artuak izan leitekez ormetan dagozan arri landu biak, VIII gizaldikoak. Fortunio'ren aldikoa da illobi au. Berarena?

Eleizearen atzoko aldean, eleizpean, betik metro bi inguruan illobi baten errezena dago estalduta. Illobi au, nire ustez, zortzigarren gizaldikoa da eta or egozan sakristian eta eleizpean, ogiaren alderdian dagozan arri landu biak. Oneik bai, oneik zortzigarren gizaldikoa dira eta estalduta dagoan illobi orretatik kenduak. Zertarako kendu ebezan? Ormea leuntzeko.

Aldi beratakoa dan ezkerro, ez ete zan ori Fortunio'ren illobia?
Orrelan itzi dagigun oraingoz. Gero eleizea aztertzen dogunean, 5n. atalean esando dogu geiago.

4.4.- Abereen aldia.

Bost gizaldi oneitan eta erri onen lurretan abere-zaiñak ziran nagusi: Neguan mendi aundietatik (Gorbea'tik eta Aizgorri'tik) artzaiñak etorten ziran ona, lur-aldatze edo “transumancia” deritxona eginda, baina emen berton be ba-egozan ardiak eta beiak. Etxeetan txarria be azten zan, urte-




Arri landu au VIII gizaldikoa da eta izan leiteke “Fortunio’ren” illobitik kendua. Sakristiko orman dago beste bat bardin-antzepoa.

ro, eta zeziña be ilten zan San Martin egun inguruan. Txarria gazunasketan sartuta eta zeziña txalaren okelea zikatuta, urte guztirako janaria ziran baserrirako eta orrelan jarraitzen dabe gaur be.


4.5.- Olak eta ikatza.

Zortzigarren gizaldian asi ziran gure erreka-ondoetan, ainbeste garrantzi dauken olak ipinten. Burdiñea aterateko etxeak ziran eta gai oneri buruz beste toki baten, 9n. atalean egingo dogu berba.



Gure oletan egiten ziran untzeak.

Olak ikatza bear eben eta, gure mendixuetan zugatz asko egoan lez, dirubide audi bat izan ziran olakaz batera ikaztegiak.



Lenengo elezearen atzeko atea. Zortzigarren gizaldikoa izan leiteke eta alboan dagoan ur bedeinkatu-ontzia be ordukoa. Or dagozan age-buru biak ekarriak dira.

4.6.- Ermitak eta kofradiak.

Bederatzigarren gizaldi-inguruan egin ziran mendixuetan ermitak edo baseleiazak eta ermitak zaintzeko, kofradiak: etxe bakoitxa “fogera” edo suete bat zan eta fogeradunak bat eginda auzoko kofradiak sortu ebezan. Sasoi orretakoa Salbadorearen lenengo eleizea.

Fruiz'en kofradia izena bera be galdu egin da, baiña auzoetako alkarte oneik indar audiak eukiko eben erri-agintaritzan.

Arazo oneik 6n. atalean aztertuko doguz astiroago.

4.7.- Garia eta sagarra.

Ikatza aterateko bear ziran mendien artean, soloak be ugaritu ziran eta gauza bi batez be artzen ziran: garia ta sagarra. Ez saltzeko baiña bai etxekoentzat janaria naikoa eukiteko beste.

4.8.- Etxeko jauna.

Elena Barrena edesti-zale edo istorigilpeak diñosku, gure errian bost-garren gizaldian asita, garrantzi audiak Etxeko jaun edo maio-

razgoak: Berau zan etxeko jaun bakarra eta etxearen bizi ziran beste guztien ardurea beronek eukan. Geienak etxetik urten egin bear izaten eben, baiña beti euken etxera etorteko eskubidea, eta maian naiz ogean lekuak.

Beronek bakarrik eukan, antxiña beintzat, batzarretan berbea ta botoa eta erriko arduradun edo alkate izateko eskubidea. Geroago be aitatuko dogu au dana.

4.9.- Erria sortuta.

Bederatzigarren gizaldirako, Fruniz erria sortuta egoan erri lez eta ortik aurrera bere alkate-antzkoak eukan eta Bizkai'ko batzarretara joateko eskubidea be bai, azkenean guztiak Gernika'n egitea erabagi zan baiña lenago beste leku batzutan be egiten ziran, esaterako Aretxabaleta-gaiñean edo Errigoiti'n edo Bermeo'n.

Fruiz edo Fruniz erria sortuta, goazen aurrera edestian.

Pasados los siete siglos oscuros, vamos a mirar a los cinco siglos siguientes en los que encontramos algunas pequeñas luces. Son los siglos octavo, noveno, décimo, undécimo y duodécimo. Son siglos legendarios.

En el siglo octavo aparece Fortunio Fruniz, el fundador del pueblo: Ganó una batalla en Bakio a los asturianos y construyó la casa llamada Asturizaga, hoy llamada Astrotza, y luego cerca de esta casa y de la cantera de Berranko construyó una torre. Dicen que hay restos de ella. Unida la torre a la casa Aldai, dio origen al apellido Torrealdai, según me dijo el religioso menesiano Jose Maria Onaindia, que sabía mucho de estas cosas como licenciado en la materia.

Es del siglo octavo el sepulcro cuya figura taponada aparece en la parte zaguera del pórtico de la parroquia. De ahí quitaron dos piedras labradas del siglo VIII que aparecen en la sacristía y en la pared que da a la panadería. Hablaremos más tarde de todo esto.

¿Sería ésta la tumba de Fortunio?

Por lo demás en esta época la gente de aquí se dedicaba a la ganadería y a la labranza. En época invernal venían pastores transumantes, especialmente del Aizgorri, y en las casas había vacas y cerdos para consumo.

En agricultura abundaban el trigo y la manzana, también para consumo.

En el siglo octavo comenzaron a existir en nuestros ríos las ferrerías, que aportaban riqueza y exigían el carbón que hacían en nuestras colinas. Hablaremos de ello más tarde.

También en esta época surgen las ermitas y las cofradías de barrios. Dejamos también esto para un estudio posterior.

Por estas fechas comienza a tener preponderancia el mayorazgo, el señor de la casa, que atendía a todos los familiares, reservando para los ausentes mesa y cama. Tenía voz y voto en las reuniones de vecinos. La casa ha sido siempre propiedad indivisible.

Ya tenemos el pueblo casi constituido. Sigamos con su historia.

5.- AGERPEN ZIURRAGOAK

5.1.- Salbadore: Eleiza audiago bat.

Gure eleizea 1200n. urtera arte txiki txikia zan eta 1200n. urtean aundigotu eben, naizta barria be gaur dagoanaren erdia ingurukoa baiño izan ez.

Urte orretatik laster asita, erriari anteiglesia edo eleiz-atea esaten jako, erriko etxe-jaunak eleizpean batzen ziralako. Lenago bear ba'da eleizatikurrean dagoan kurutzearen eleizan edo kurutzepeioan batzen ziran, oraingoa baiño txikiagoa izango zan eleizatxu baten. Oraingoa amaseigarren gizaldian egiña da, baiña, lekuko lez, eleizpean dagon arrizko maiaren antzeko baten inguruan batzen ziran maiorazgoak edo “hidalgos=hijos de algo”, etxeko jaunak.



Eleizpeko orman dagoan idazkia lei. XIII gizaldikoa da, ate-ederraren sasoikoa.


5.2.- Eleizpeko idazkia.

Eleizpeko orman gaur idazkitxu bat dago. Edozeiñek ezin leike irakurri, baiña bai orduko kodea dakienak. Karezko orma-azalean idatzita dago eta amairugarren gizaldikoa da. Ez dot ikasi zer diñoan, baiña gauza bat bai diñosku: Orma ori amairugarren gizaldian egiña dala.

5.3.- Ate ederra.

Eleizara sartzeko dagoan atea, ate ederra (*porta speciosa*) erromanikoa da eta Bizkai guztian dagoanik erromanikorik ederrena, Galdakao'ko Andra Mari'ren parekoa.

Ate eder ori be 1200n. urte ingurukoa da eta ona emen daukazan gauza bitxi batzuk: Lau age ezbardiñak, ezkerreko age-buruan Erregearen kortea erregea bera erdian eta alboetan Gotzain bi eta musiku bi dituala, zazpi arki-bolta ondo landuak eta giltzarrian Kristo'ren iruditxua. Eskoiko ageburuan



Fruiz'ko elezearen ate ederra 1200n urtekoa

zaldun burukalariak, erdian lekaide edo gotzain bat bakeak egiten dagoala. Onek Estibaliz (Araba'n) gogoratzen dausku: Irain-ordeak edo desagrabioak.


Gaiñera ezker-aldian beeán Donejakue-bidekoen ezaugarri ozkol edo kontxa bat dago. Donejakue-bideetan Salbadorea sarritan agertzen da, Leire'n asita.

Ate eder onen alboan ur bedeinkatu-ontzi audi bat dago, ez dakigu noiztikoa dan.


5.4.- Atzeko ate-ondoan.

Atzeko atea oso zarra da, bear ba'da zortzireungarren urtean egoan eleizatxua-ren atea, baiña ezelako apaingarri bakoa.

Ate-ondoan ur bedeinkatu ontzia dago, atearren sasoikoa, eta gaiñean erdi apurtuta, nondik edo andik ekarriak diran age-buru bi, erromanikoak, millagarren urte-inguru-koak.



Elezaren atzoko atea.



Torrepeko arkuak gotiko tankerakoak dira, XV gizaldikoak. Ez dira elezako arkuen antzekoak, oneik puntu-erdikoak dira. Baiña izan leitekez sasoi batekoak.

5.5.- Torrepeko arkuak.


Torre bera amabostgaren gizaldikoa da, baiña azpiko arkuak, gotikuak dira eta torrea baiño zarragoak. Zelan ori? Gaiñera ez dira antxiñako eleiza txikia-ren sasoikoa be, beranduagokoak baiño. Bear ba'da torrea egin ebe-nean, lenagoko estiloa artuko eben, amalaugaren gizaldikoa.

5.6.- Erremedio'ko Ama.

Eleizearen barruan daukagun gauzarik zarrena ta onena Erremedio'ko Amaren irudia da. Au be 1200n. urtetik laster egiña eta Begoña'ko Amaren irudia baiño lenagokoa ta ederragoa. Nondik igarri? Umea aurrera begira eta Ama barretxu bakoa dalako.

1956n. urte inguruan zar-zale batzuk eterri ziran erosle eta irudi au erosi nai izan eusten. Ara zer esan eben: Beste irudi bat ekarriko dogu bardin-bardina, lengoa ez dala iñok be igarri eziñekoa, eta gaiñera 50 mila pezeta emongo jatzuz. Orduan dirutza aundia zan eta falta aundia be egiten eban.

Nire erantzuna auxe izan zan: Irudi barri ori berau ez dala iñok igarri eziñekoa ba'da, zuek kирten batzuk zaree! Barria eukizue zeuek eta ez daukazua 50.000 pta orreik emon-bearrik. Orretan amaitu zan gauzea. Urte areitan erosle asko etorten ziran eta Jainko'tik be kurutze ederra eroan eben erosita, amalaugarren gizaldiko kurutze aundia ta ederra. San Luis'etik Justo eta Pastor santuen iruditxu politak.



*Erremedio'ko Amaren irudia. XIII gizaldikoa.
Begoña'ko baiño zarragoa ta ederragoa.*

5.7.- Amalaugarren gizaldia, txiroa ta larria.

Amalaugarren gizaldian lan eder asko egin zan, baiña erria bera oso txiro egoan.

Zor audiak egiten ziran eta etxeak be saldu egin bear jauntxuai zorrak ordaintzeko.

5.8.- Feudoak eta jauntxuak.

Inguruko errietañ jauntxuak (parientes mayores) indar aundiak artu eben eta gaiñera lotsabako aundiak ziran.

Beti ebiltzazan alkarragaz gudan, alkarrilten eta batak besteari lapurreta aundiak egiten. Ez euren artean bakarrik, erritarrai be bai.

Inguru onetan geien ibilli ziran jauntxuak Billela, Butron eta Meñaka ziran. Orreikaz batera, bear ba'da Gamiz'ko Ugarte'ko Jauna.

Eta oraindiño kanpotik etorten ziran, erregeak bialduta, beste jauntxu batzuk: Ospetsuena Juan Alonso de Muxika zan. Onek erregearen eskubideakaz eleizako amarrenak (erriak eleizarako emondako lurrañen frutuetan euneko amar) beragandu egiten ebazan Erregeari emoteko dala-ta, baiña dana ez zan elduko erregearen eskuetara. Gero eleizak jausten.

5.9.- Iru uri inguruan.

1376n. urtean erregeak edo Bizkai'ko Jaunak iruuri irazan edo fundau ebazan emen inguruan: Larrabetzu, Errigoiti eta Mungia.

Zertarako ziran iruuri orreik?

Erregeak diñonez, errria batu eta orrelan kalteak kentzeko, obeto zaintzeko. Gaiñera erritarrok eskatuta ipini zirala diñon agirian. Nire ustez, beste bat zan bere asmoa: Errietako amarrenak eta sisak obeto eskuratzeko eta Eleiz-ateetan egoan askatasuna bere menpera eroateko.

5.10.- Uri-auzoak.

Uriak sortze orrek erritarren artean asarreak ekarri ebazan, jauntxuak orretarako bide zirala.

Orregaitik sortu ziran Fruiz'en eta Arrietañ edo Morga'n, uriau zoak. Oneik Fruiz'en barruan egon arren, Mungia uriaren menpean egozan eta ango uritarrak ziran. Orrek erriari kaltea egin eutson.

Aldi arelan Fruiz'en 41 sendi ziran uri-auzoak, Andeko osoa barru zala. 205 erritar guztiz.

Arazo ori oraintsu konpondu da, uri auzoak Fruiz izatera sartuta.

5.11.- Olak indar barria.

Aldi onetan olak indar aundia artu eben eta olakaz batera ikazgíñak, baiña gauzatxu bat gogoratu bear dogu: Beste irabazbide bat be sortu zan, karreretuena, ididunena.



Olagizona lanean.

Oletara meatza edo minerala ekarri egin bear zan. Nondik? Somo-rostro'tik!

Ez ziran gure karreretuak Somorrostro'ra joaten, guztiak ez beintzak. Meatza itxasoz etorten zan eta karreretuak erri onetara joaten ziran: Bilbao'ko erriora, Sestao'ko Galindo'ra, Asu'ko errekkara eta Gernika'kora. Irabazi ona zan ori erritar batzurentzat.

Entramos en este capítulo a monumentos y documentos más seguros entre los siglos XIII, XIV Y XV.

Comenzamos con una primera ampliación de la iglesia parroquial en 1200. Desde esas fechas se empieza a llamar al pueblo Anteiglesia, porque los mayorazgos se reunían en el pórtico en torno a una mesa de piedra. Queda como recuerdo la mesa actual que no se puede identificar o colocar en una fecha.

Hay una inscripción en el revoque de la pared, no lejos de la portada románica que es del siglo XIII y sabiendo el código se puede leer, cosa que no hemos hecho hasta ahora. Pero eso nos indica que esa pared fue construida en ese siglo.

Lo mejor que tenemos en arte es la puerta especiosa del año 1200, más o menos, sólo comparable en Bizkaia con la Iglesia de Santa María de Galdácano. Tenemos en la portada a la izquierda el capitel del emperador con corte de obispos y músicos, a la derecha caballeros luchadores con un monje en el centro. Cuatro columnas muy bien labradas y distintas, una concha que recuerda a los Peregrinos de Santiago, un Cristo en la clave y un ajedrezado solo comenzado arriba. Tiene siete arquivoltas bellas. Cerca hay una pila de agua bendita rústica que no se sabe de cuándo puede ser.

La puerta trasera es de la primitiva iglesia, de un románico muy toscos y junto a ella una pila de agua bendita que puede ser de la misma época y dos como capiteles románicos, deteriorados y traídos de alguna otra parte de la antigua iglesia.

Hermosa y antigua la Imagen de la Madre de los Remedios, más hermosa y más antigua que la de Begoña, se conoce en que es más hierática.

A pesar de estas apariencias, el siglo XIII fue pobre y turbulento, agitado.

La causa de ello fueron los Parientes Mayores, para nosotros las Casas de Villela, Butrón y Meñaca, y quizás la de Ugarte de Gámiz. Estos mataban, robaban, guerreaban y se quedaban con los diezmos que los feligreses daban a la parroquia, autorizados para ello por el rey. El más famoso fue Juan Alonso de Mujika que

recogía todo para entregar al Rey. Posiblemente bastante le quedaría en sus manos.

Para realizar más fácilmente estos “robos” se fundaron tres villas cercanas: Rigoitia, Larrabezua y Mungia. En las villas el Rey tenía más poder. Libre del fuero y del Pase foral. Luego entraron a las Juntas.

Las villas y los jauntxus fueron causa de la creación de los uriauzos que por estas fechas quitaron a Fruniz 41 familias con 205 habitantes que pasaron a Mungia y allí quedaron hasta hace muy pocos años.

Surgen por estas fechas los carreteros que traen mineral para ferrerías. Venía de Somorrostro por mar y recogían en las rías de Asua, Gernika, Galindo y Bilbao. Era otro ingreso para el pueblo.

6.- ERIA SENDOTUTA (XVI GIZALDIA)

6.1.- Gaur daukagun eleizea egiten.

1560n. urtean agiri gogoangarri bi agertzen dira, bata Maria Otxoa de Lomaika'k izenpetua. Onek eleizea egiteko txal bat emoten dau. Eta bigarrena, urte beratakoa, Gonzalo de Fruniz'ek izenpetua. Onek lau dukat emoten dauz eleiza barria egiteko.

Agiri bi orreitakat atera geinke 1560n. urtean egin zala orain daukagun eta irugarrena dan Fruiz'ko Salbatzaillearen eleizea.

Eleiza au lengoen aldean aundia da, ber-jaiotza edo “renacimiento” tankerakoa: arkuak borobil-erdikoak dirala.



Salbatzaillearen Fruiz'ko elezea (1560).

6.2.- Santuen lekua.

Eleizearen aurrean santuen lekua edo “erretabloa” dauagu. Eleizea egin zan sasoi beratakoa. Orduan amaseigarren gizaldikoa.

Erdian Salbatzaillearen irudi ederra dago, alboetan Tabor Mendian izan ziran Moises eta Elias eta barrenean Pedro eta Juan lotan. Gaiñegaiñean Kalbario polita: Kurutzea, Ama neketsua ta San Juan.



Altarearen santu-lekua: erdian Salbadore, aldo bietan Moises eta Elias, berago San Juan San Pedro lotan eta goi-goian Kalbarioa. Dana da XVI gizaldikoa.

Alboetan lenago beste santu-leku bi egozan, txurrigera tankerakoak eta balio aundi bakoak. Kendu egin ziran, geroago esango dan lez (ikusi 10n. atala) eta berbizkundearen irudiak ateetan daukazen sagrario bi zaindu dira. Sagrario batek santu bi daukaz alboetan baiña ez dakigu zeintzuk diran. Ateetan berbizkundearen iruditxu polit bi.



Albo bietan sagrario bi itzi genduzan, bata Gure Jauna dagoana eta bestea bateoetarako gaiak. Eskoian atea berbizkundearen irudiagaz eta santu bi, ezkerrean atean Berbizkunde.

6.3.- Kurutze-eleizatzua.

Sasoi onetakoa da eleizatik pausu batzutara dagoan illerriko eleizatzua. Gaur Udal-Batzari emonda dago illerriak or jarraitzen dauan artean.

Eleizatzu polita da: egurrezko atea, eleizpea, sarrerako atea, alta-reau...

Erdiko ate onen orman lauburu batzuk dagoz arrian irarrita.



Kurrutzeko eleizatzua (XVI) Gizaldikoa

6.4.- Izurriteak.

Joan dan gizaldian Fruiz aurrera egin eziñik ikusi dogu, batez be Jauntxuen okerkeriakaitik.

Gizaldi onetan ba-doa askatasuna lortzen baiña kostata: Zori txa-rezz izurrite edo “peste” bildurgarriak etorri eta erritarrak asko gitxitu ziran. Negarra ugaritu.

Oraindiño, gizaldi onetan, 1577n. urtean Mungia'ko Martin Villela jauntxuari erritar batek mando bi eta 60 anega gari erosi bear izan eutsozan, agiri baten agertzen dan lez.

6.5.- Jauntxuengandik aske.

Jauntxuak eurak eukezan artuenak artzeko, baserritarri etxea kentzen eutsen eta Etxe-jaunak oso gitxi geratu ziran. Orregaitik etxe-jaunen esku-bideak jabe ez ziranai emon eutsezan batzarretan.

Baiña gizaldi onetan Erregea ikaratu egin zan Jauntxuen okerkeriak ikusita eta torre guztiak erditik gora botateko agindua emon eban. Or galdu eben, zorionez, euren idarrik geiena.

Lurra iñoz baiño emonkorrago agertzen da. Ona emen lortzen diran uztak edo kosetxak: Arta txikia (mijo), artoa, oloa, gaztañea, sagarra, liñoa... eta basoetan ikatza egiten da ugari olai saltzeko.

Ez aitztu liñoa agertzen dala or. Gure etxeetan goruetan egiten zan eta etxerako jantziak eta oialak eta olakoak egin.

On-aldi onek baserria indarra emon eutsen eta len saldutato baserri asko barriro erosi ebezan. Jabe biurtu ziran.

6.6.- Agiri batzuk.

Olai buruz agiri asko dago gizaldi onetan.

Legarreta edo Duo olak Martin Uriarte dau Jabe. Ibarra'ko olak (au Gamiz'en dago baiña muga-mugan) indar aundia agertzen dau eta Fruniz-Etxebarri (Puntzebarri) be sendo agertzen da eta orrelan jarraituko dau XIX gizaldira arte.

1583n. urtean Sanjurdi izena daukan ola bat agertzen da.

Danean agiri da ba, aurrerakuntza.

En el siglo XVI fue construido el templo actual. Eso dan a entender dos documentos curiosos: En 1560 María Otxoa de Lomaika da un ternero para obras de la Iglesia y el mismo año y con el mismo fin Gonzalo de Fruniz dona cuatro ducados.

La nueva Iglesia es mucho más amplia que las dos que le han precedido. Es de estilo renacimiento con arcos de medio punto, con un coro sobre un arco escarzano.

Al pintar recientemente la iglesia y quitar para ello los zócalos de 1'50 de altura ha aparecido una hornacina que no se sabe de cuándo es ni qué finalidad tenía. Otro parecido se taponó bajo el coro y sigue existiendo una más pequeña junto al antiguo bautisterio, bajo el coro.

El retablo puede ser de la misma época y tiene imagen del Salvador de la época, con Moisés y Elías a ambos lados y San Pedro y San Juan durmiendo en la base. Arriba un calvario bonito.

Había otros tres retablos que desaparecieron en la restauración de 1964. Quedan las dos puertas de sagrario con imagen de la Resurrección, que son bellas, y junto a uno de ellos dos santos que no son conocidos. Hay una imagen de San Sebastián.

La ermita del Crucifijo o humilladero del Cementerio es de la misma época o poco posterior: tiene puerta de acceso de madera, pórtico, media pared divisoria con puerta de madera, labrada también. En esta media pared hay cuatro lauburus distintos y no muy bien labrados. Dentro altar.

Esta ermita con el cementerio y trozo de terreno inculto hacia sur y norte fue donado al Ayuntamiento hacia el año 1970 con la condición de que se devuelva en caso de trasladarse el cementerio a otro lugar.

Durante este siglo azotó al pueblo repetidas veces la peste que mermó mucho el número de habitantes. Fueron un obstáculo en este siglo de renacimiento. Todavía en 1577 un vecino compra a Martín de Villela, jauntxu de Mungia, una mula y 60 fanegas de trigo.

Pero los reyes, sabiendo los desmanes de los jauntxus actuan contra ellos desmochando sus torres. Sigue el resurgir y las tierras dan en abundancia mijo, maíz, avena, castaña, manzana y lino (los telares o euleak, gorulariak, fabrican en casa vestidos y lienzos). Abunda el carbón para las ferrerías que pagan bien.

Muchos que habían vendido sus casas para pagar las deudas vuelven a ser propietarios.

7.- SAN JUSTO'KO KANPAIA (XVII GIZALDIA)

7.1.- Baseleiza konpontzen.

Urteen joanean baseleiza edo ermitak konponketak bear izaten dabez. Ez dira merkeak, baiña gure edestiaren sustraiak ortxe dagoz eta eutsi egin bear jake.

Aurten konpondu dogu San Justo eta San Pastor'en baseleizea (San Luis). Lau milloi inguru kosta da eta milloi bat artu dogu Bizkai'ko elezatik, beste milloi bat Arrieta'ko udalak emonda eta Fruiz'ko parrokitik milloi bi. Zenbaki oneik gitxi goraberakoak dira.

Baseleizak konpontzen diranean beti agertzen dira gauza arrigarriak. Emen ez zan ezer agertzen eta ni arrituta nengoan, baiña azkenean, uste barik, agertu zan zerbait: kanpaia bere lekutik jatsi eta obeto ipinteko ustean gengozan, baiña zulo bat eukan aurrean eta arrakala bat atzean.

Kanpainen arloan lan egiten dauan Portilla adiskideari erakutsi neutsan, konpondu al leiken ikusteko eta ara zer esan eustan: Zulo au bala batek egiña da (36'ko gudan ala karlistenean?) eta atzeko arrakala au konpontzen ez ba'da, laster erdi bi egingo da kanpaia. Baiña kanpai au ez da torrean eukitekoa, Museo baten baiño. Emen goian dauka baseleizearen izena (Santos Justo y Pastor) eta alboan urtea, 1678. Antxiñako kanpaia da.

Gero Bilbao'ko Gizakunde (Encarnación) plazan dan Museo'ra deitu neban eta esan eusten Bizkaia'n diran kanpainen artean zarrenetarikoa dala.

Baiña nik esan neutsen ireureun eta ogei urte baseleiza arretan egin ebazan ezkerro, axe dala eukiteko lekurik onena, beronen lekua ondo geratu ezkerro. Eta orretan gagoz.

Konpondu egin bearzan kanpaia eta orretarako emen inguruau baiña obeto egiten dabela lan Alemania'n esan eusten eta, ziurtasun guztiak artuta, ara bialdu dau Portilla'k kanpaia eta andik da ostera luzea egiten.

Olako kanpai bat ipiñi eben urtea, ez zan, zalan-tza barik, ekonomi-arloan urte txarra. Ezaugarri bat da. Eta beste ezaugarri bat, an atzean dagon orma zarrean agiri diran eta burdin-olako ondakiñak diran arri-antzekoak dira. Olak bizi egozan sasoikoa.



San Justo'ko kanpaia:

- 1678n. urtekoa.
- Bizkaian sarrenetarikoa.
- Balaz zulatua.
- Arrakulatu

7.2.- Sakristia sutan.

Urte orretan (1678)
Fruiz'ko Sakristia erre zan.
Zelako estuardiak izango
ebezan orduko abadeak!
Eta sakristian artxibo'ko liburuak erre ziran. Gero barriak egin ebezan,
baiña ez lengoen bestean zeatzak. Or jakingarri asko galdu ziran.

7.3.- Artoaren gizaldia.

Artoa, esanda dagoan lez, XVI gizaldian eldu zan Ameriketatik,
baiña amazazpigarraren gizaldian artu eban indarra.

1625n. urtean agiri baten eleizeari zeren amarrenak emoten jakozan agertzen da, eta geien agertzen dana artoa da.

Asieran piztien janari lez artu zan, baiña laster ikasi eben norriak be artoa jaten. Urte askotan izan da emen janari taloa. Osasunerako oso ona dala artoa diñoe jakitunak.

Amarrenen agiri orretan artoaren urrengo gaztañea ta sagarra agertzen dira.

7.4.- Karabiak lanean.

Gauza askotarako da ona karea: Etxeak zuritzeko, soloetan, batez be buztin-lurretan lurra arintzeko, izurrite edo pestea uxatzeko.

Entzuna dogu antxiñako barregaiia: Soloan satsa ta karea zabaltzen egoan gizon baten ondotik igaro zan arrentza edo errogatibea eta soloko gizonak “ora pro nobis” entzun ebanean esan ei eban: “Ora pro nobis baiño obea, satsa ta karea”.

Gizaldi onetan zabaldu ziran gure artean karabiak: Busturi’n egoan bat ospetsua. Baiña gero karearen indarra abonoetan sartzen dabe.

7.5.- Laietak.

Gizaldi onetan (XVII) sartu zala lajeta-lana irakurri dot eta arriatu egin naz. Nik antxiñagokoa zala uste neban.

Laia ortza bi eta kирten bat daukazan lanabesa da. Lan egiteko etxekoak edo auzokoakaz batera ortzak lurrean sartzen ebezan eta guztiak batera lurraldi buelta emon. Lan neketsua baiña bearrezkoa. Gero laieria eta laietako makiñea etorri zan Gasteiz’ko Ajuria lantegitik. Gauza polita izan da beti gure soloetan idi-buztarria lanean, ugazaba atzean eta itaurrekoia aurrean dirala.

Baiña ori gaur galduzat dago. Gaur makiñea barriak, traktorak, dira nagusi.

7.6.- Ikaztegiak.

Ikatza egitea lenagotik dator, baiña gizaldi onetan indar barria artu eban eta irabazbide on bat da baserri askotarako.

Ikatza basoan bertan egiten zan: Sugarri edo egurra luraren azpian ipiñi txondorra eginda, erdian ke-zuloa eta, azpitik asita, sua. Lurrik ez dau izten sugarria osoan erreten eta erdi-errea ikatz biurtuta geratzen da.

7.7.- Basozaiñak.

Baiña basoetako txondorrak eta beste arrisku batzuk basoetan suesteak sortzeko arriskua ekarri eben.

Ortik sortu zan Basozaiñaren lanbidea. Asieran Auzokoen artean ordaintzen jakon, baiña urteen joanean Udal-Batzak artu eban ardura ori.

7.8.- Teilleriak.

Etxeak egiteko teillea eta zoi-erreak, adobeak, naiz ladrilluak bear ziran. Lenagotik be bai, baiña aurrerapenak egiñez geiago.

Teilleri oneik tabernatikurrean egoten ziran itun edo tratuak egiteko gauza egokia zalako.

Fruiz' en teilleria Taberna zarraren ondoan egoan. Taberna Zarra, gaur be ori izena daroa, Esperantza baserriaren ondoan egoan eta antxe alboan teilleria be.

Bai tabernean eta bai teilleria parrokiaren lurretan egozan eta au parrokiarentzat etorri ona zan.

Ona emen 1625n. urtean parrokiko kontu-liburuan agertzen diran sarrerabideak: Amarrenak, basoak, arantzela edo elezkizunetan kobratzen zana, ikatza ta egurra saltzea eta tabernean. Tabernatik abadeak eleizarako urte guztirako ardaua eta saltzen ebanaren laurena artzen eben. Ez eukan irabazi gitxi parrokiak!

7.9.- Beste taberna bat?

Ardauari ta edariai ondo begiratzen jaken goitik: Iñok ez eukan eskubiderik ardaua erosteko taberneak baiño.

1605n. urtean Maria Otxoa de Bidaurrazaga'k eskaria egin eban Etxatxu'n taberna barri bat ipinteko. Baiña ezetza emon eutsoen.

1635n. urtean eta taberneari buruz abadeentzat agiri gogor bat agertu eban Kalaorra'ko Gotzain-Ordezkarriak: Abadeak tabernara ez dabe joan bear, ez jateko, ez jokorako ez edateko eta dantza egiteko. Tabernak ez euken izen ona, emen be ez beste lekuetan be ez: Zelako itzaldi gogorrak egin ebazan, esaterako, Ars'ko abadeak. Antzera gure Frai Bartolome euskal idazle markiñarrak.

1690n. urtean asi zan Udal-Batzza ardauari eta tabernai sisak kobra-tzen.

7.10.- Udal-Batzaren etorriak

Arritzeko gauzea da baiña gizaldi onetara arte Udal-Batz edo aiuntamentuak ez eukan ezelako ondasunik, ez etxerik, ez jabetzarik. Batzarrak egiteko be eleizan edo inguruan batzen ziran.

Gizaldi onetan asten dira irabaziak billatzen.

1680n. urtean agertzen da Udal-Batzaren lenengo kontu-liburua. Ona emen etorriak nondik: Fogera dunai zergea, erratoi zergea, taberneari zergea, teilleriari, olai eta ikatzari zergea.

Maillegoak edo prestamuak, orduan zentsoak esaten jaken, korridu audi barik egiten be asi zan Udal-Batza.

Las ermitas necesitan con alguna frecuencia reparaciones más o menos importantes y en algunos casos suele ser preciso derribar la vieja para construir nueva.

Este mismo año le ha tocado este retoque a la ermita de los santos Justo y Pastor, que últimamente se llama de San Luis ya que la fiesta del barrio se ha trasladado a esta fecha por coincidir

estos santos patronos con el día de El Salvador. Esta ermita pertenece a Arrieta pero es parroquia de Fruniz desde una nueva demarcación de parroquias que tuvo lugar por los años cincuenta.

Entre las pocas cosas de valor arqueológico que han aparecido, mencionemos su campana que estaba agujereada por bala y rajada. Se ha enviado a Alemania para su reparación con las debidas precauciones y en este momento está de viaje. Lleva la fecha de 1678 y es de las más antiguas de Bizkaia.

En este siglo de la campana de San Justo tenemos que recordar noticias del mismo siglo.

El año 1678 se quemó la sacristía y hubo que reponer malamente algunos libros del archivo parroquial.

Es el siglo en que adquiere gran importancia el cultivo del maíz, que procedente de América se introdujo el siglo anterior. En un documento del año 1625 se asegura que la mayor parte de los diezmos pagados a la parroquia fueron de maíz, seguido de la castaña y la manzana.

El maíz fue al principio comida de ganado, pero pronto llegó el talo. Se dice del maíz que es muy saludable.

Los caleros para abonar campos y para luchar contra la peste e incluso para blanquear las casas aparecen en esta época.

Aunque teníamos idea de que la laia es bastante anterior, aparece también en este siglo. Luego vino de la fábrica Ajuria de Vitoria la máquina y recientemente han desaparecido de nuestros campos los idílicos bueyes para dar paso a los tractores.

Es el siglo en que se fomenta el carbón vegetal en nuestros montes y se nombran guardas de montes contra incendios.

También las tejerías aparecen en documentos de este siglo.

La tejería de Fruiz estaba junto a taberna zarra, cerca del caserío Esperanza de hoy. Ambos edificios, tejería y taberna estaban en terrenos de la parroquia. En 1625 entre los ingresos de la parroquia aparecen como fuentes, diezmos, renta de montes, arancel de servicios religiosos, venta de madera y carbón y la

taberna de la que sacaban vino para las misas de todo año y un cuarto de las ventas. La economía estaba bien saneada.

La venta de vino y licores estaba rigurosamente controlada. Nadie podía vender vino excepto la taberna.

Es de 1605 un documento de solicitud para poner la taberna en Etxatxu presentada por María Otxoa de Bidaurrezaga. Le fue denegada.

En 1635 hay un documento firmado por el Vicario del Obispado de Calahorra en que se prohíbe severamente, bajo pena de excomunión, que los curas vayan a la taberna o jueguen dinero o coman y beban en ella o bailen. Luego se suavizó este decreto, pero las tabernas por estas fechas tenían mala fama.

Podemos observar con extrañeza que el poder civil elemental hasta estas fechas no tenía ninguna posesión, ni siquiera lugar donde reunirse. Lo hacía en el pórtico de la iglesia.

Pero en este siglo empieza el cambio. En 1680 aparece el primer libro de cuentas del “Ayuntamiento” de Fruniz y se encuentran ingresos como aportaciones de la fogueras, molinos, taberna, tejería, ferrerías y carbón.

El “Ayuntamiento” empieza a prestar dinero a bajo interés a los ciudadanos por medio de los llamados censos. Esta práctica es más antigua y general por parte de la Iglesia y de los Parientes Mayores.

8.-ERRIA OBETO ERATZEN (XVIII GIZALDIA)

8.1.- Irazpen (fundaziño on bat).

Neure eskuetan euki dot sarritan agiri au, baiña ez dakit orain Derio'ko agiritegian egongo dan. Labur-labur esango dot.

Gizaldi onetan zala uste dot, Fruiz'en senar-emazte batzuk irazpen edo fundaziño bat sortu eben: Euren salbamena lortzeko eleizeari, parroki oneri, ondasunak emoten dautsez: Etxe bat, solo batzuk eta baso batzuk. Ordez Eleizeak errian kapellau bat ipiñiko dau ondasun orreitatik bizi daiten eta onek mezak, urtegarrena eta olakoak egingo dauz betirako euren alde. Lenengo abade kapellaua euren familiko bat izango da eta onen ostean etorriko diranak ez daitezela izan ez judioak, ez mulatoak, ez leiñargi-agiri bakoak.

Agiri orretan agertzen diran etxe, solo ta basoak abade etxe barria egiteko saldu ziranak dira geienak. Ori 1958n. urte inguruan izan zan, baiña beste leku baten zeaztuko dogu arazoa.

Fundaziño onek mezede asko egin dautsoz gure parrokiari.

8.2.- Osagillea errian.

Gaisoak beti izan dira Fruiz'en, beste lekuetan lez, baiña ez osagillerik urte onetara arte. Eta urte onetan be ez Fruiz'erako bakarrik, beste erri batzukaz batera baiño.

Osagille oneri "saludador" esaten jakon, "dador de salud".

Sarri agertzen zan gaisoa, amurrua zan: txakur amurratuak aginka eginda zabaltzen eben gaisoa.

Osagilleak geien egiten ebana, odola kentzea zan. Ori beti lenengo zeregiña, sangrau.

Gaisorik egoanak edo bere etxekoak ordaintzen eutsen, baiña laster asiko da Udal-Batza ardura au artzen. Dana dala, ia geure aldira arte ezagutu dogu etxerik etxe igualea kobratzera etorten zan gizona. Ira-kurlearen pozerako ona emen baserritar baten erantzun zurra. Onek osagilleak bialdutako gizonari esan eutson:

-Zu! Osagilleak nire azkenengo gaisoa osatuko daust?

-Azkenengoa ba'da, ez.

-Ba, azkenengoa ez ba'da, neuk osatuko dot!

8.3.- Amarrenak aurrera.

Aurreko ataletan agertu dira amarrenak. Eleizetan toki bat egoan “diezmera” izenekoa eta or pillatuten ziran amarrenak edo soloak emoten dauanetik amarreko bat.

1702n. urtean Frantzisko Lejarreta Orue’k gogoratzan dauskuz agiri baten amarrenak: Amarren aundiak sagarra, babea, baba txikia ta indiababea dira. Eta txikiak garia, ta artoa.

1789n. urtean Fruniz’tik lareun anega arto eta gari saldu ziran.

8.4.- Gaztañea saltzen.

Gaztañeak garrantzi aundia artu eban gizaldi onetan. Eta orrelan jarraitu dau ia gaur arte. Orain 60 urte inguru gaztaiña-zugatzai gaisoa etorri jaken eta geienak galdu ziran.

Gaztañea jateko ona zan, bai erreta eta bai talo-antzeko bat eginda. Antxiñako euskaldunak asko jaten ei eben.

Gaiñera gaztaiña-zura edo egurra ona da etxerako altzariak egiteko eta sitsik ez jako egiten, sendoa be ba-da. Ikatza egiteko be onenetari-koa. Itxas-ontziak egiteko punterengoa da.

1799n. urtean 420 anega gaztañea saldu ziran Fruiz’en eta 1868n. urtean 730 anega.

8.5.- Indabea amarrenen artean.

Gizaldi onetan agertzen da indabea parrokiko amarrenetan.

Ameriketatik eterria da janari au eta artoagaz batera ugari agertzen da gizaldi onetan.

8.6.- Txakoliña.

Matsa ta txakoliña be agertzen dira Fruiz'en XVIII gizaldian, baiña ez asko. Askoz gurago eben kanpotik ekarritako ardaua.

1868n. urtean Fruiz'tik 30 kantara baiño ez ziran saldu eta Morga'tik urte orretan 400 kantara.

8.7.- Jabetzaren aldakuntzak.

Baserrian bizi danak beti nai izaten dau etxea berea izatea, baiña jabetza onek aldakuntza asko eukiten dauz urteen joanean, len be esan dogun lez. Jauntxuak zorpean artzen eben baserritarra eta zorrak ordaindu ezin dauzanean, etxea kentzen eutsen.

XVIII gizaldiaren asieran jabeak urritu egin ziran eta baserriak burgesen eskuetara joan. Orregaitik izango ete zan Fruiz'ko abade etxea egin eban Aman arkitektoa Fruiz'ko etxe batzun jabe izatea, Mandaluniz auzoan? Baiña ugazabak ez dira gogorrik errenteak eskatzen. San Tomas egunean eroaten eben errenteak Bilbao'ra eta errenteagaz batera indaba apur bat eta oillasko pare bat. Ugazabak bazkari ederra emoten eutsen eta etxera etorteko otxaratxu baten gabon-sariak ekartzen ebezan.

1704n. urtean Fruiz'en %71 dira jabeak eta 1810n. urtean %33 baiño ez.

8.8.- Abere-azokea.

Gure gazte-denporan ospetsua izaten zan Fruiz'en Sallebantetxu eguneko abere-azokea. Gero galdu da eta orain barriztatu gura da.

1781n. urtean egun orretan Fruiz'en abere azoka aundia agertzen da eta taberneak eratzen eban ori, ardaua saltzeko. Orduan Tabernazarra, eta Esperantza inguruan egingo zan.

Urteen joanean azoka batek iraun eban: Mungia'n San Antontxu egunean. Oraintsu oraindiño ikusi doguz baserritarrok eguna Mungia'n igaro eta besegua lepoan dabela andik etorten.

Gure gazte-denporan tratanteak etorten ziran etxeetara. Orrek be azokeari indarra kendu eutson. Gogoratu orantsu Patxo Abarka edo Patxo Drakane.

8.9.- Diego-Aretxeta basoak.

Fruiz'tik Montañera, Gomoa igarota, joan ezkerro, lurrealde bat aurkituko dogu, bakar-leku bildurgarria. Lurrealde oneri beti esan dautsagu Diatxak. Beti egon naz arduraz izen ori nondik ete datorren. Ez dot argi asko aurkitu baiña poztu bai egin naz: Diego-Aretxeta izeneko basoak agertzen dira gizaldi onetan. Erri-basoak dira eta zugatz askokoak.

Diego-Aretxeta=Diatxak, zelan aldatzen diran urteen joanean berbak! Antzera Fruniz-etxebarri-Puntzebarri.

8.10.- Bideak eta zubiak.


Bide zabal aundi bat daukaguurrean, Larrabetzutik, Aretxabala gaiñetik, Gerekiz'tik Gernikara doana, baiña orra eltzeko eta berton ibilteko, bide asko eta askotarikoak bear izan dira Fruiz'en. Ba-dakit, bide oneik udalaren jabetzakoak diralako, gure Udal-Batza zerbait egin gurean ibilli dana. Ondo lego! Jabetza ori ez da iñoz galtzen! Erri-bideak edo gurpideak edo errege-bideak (errepeideak) esaten jake.

Gerekiz'tik doan bidea errepeidea edo erregebidea da, baiña orren urrengoa errien arteko gurpideak dagoz, oneik be udalaren jabetzakoak, baiña gaur sarritan solo edo baso biurtuta. Emendik Diatxetara doa bat eta andik Bilbora zati bi egin eta bata Fika'ra eta beste Gamiz'ko Kaperjara. Baiña olako bide asko dagoz. Gaiñera kontuan

artzeko ez diran oinbideak, eta baserri bakoitzak daukan eleizarako andabidea.

Amazortzigarren gizaldian agertzen da bideen arazoa eta bideen baiño geiago an or emen bear diran zubiena, zubi guztien buru gure artean Lepotikoa dala. Oraintsu zabaldu dabe.

Erritarrai dei egiten jaken biderak eta zubiak konpontzeko.



8.11.-Ardaua tabernan!

Arazo au len be aitatu dogu, baiña gizaldi onetan garrantzi barria artzen dau: Karta-jokoa galerazten da (batez be dirua jokatzen danean), gabeko abemariak jota gero taberna'n dagoanari 1000 marabediko zigorra ezarten jako, tabernak kanpoko jentearentzat dira eta ez errikoentzat, taberneak sisak ordaindu bear dauz (au 1690'an agertu zan lenengoz).

1730n. urtean Gabriela Olazar epailariaren aurrera eroan eben, Morga'n, Gamiz'en, Arrieta'n eta Fruiz'en ardaua saldu ebalako. Bilbao'n erosten eban eta sisak an ordaindu.

Fruizko taberneak subastan emoten da eta baldintzak onei zortzirak dira: Azunbra bakoitzak zortzi errial sisa, abadeai mezarako duban emon, ikertzaillea bisita egiten datorrenean aren gastuak ordaindu, Salbadore, San Lorentzo, San Miguel eta San Esteban egunerako ardaua ekarri, 2.200 errial ordaindu errenta lez, grilloak zaindu (taberna kartzelea be ba-zan), balantzea, pisuak eta neurriak ondo zaindu eta fielari emon azkenean, erremata fidatzaille biren aurrean egin.

8.12.- Kurutzea geldi edo jasota.

Kurutzeari garrantzi aundia emoten jako aldi onetan. Batzarrak kurutze geldiaren aurrean egiten dira (cruz parada) eta ibilbideak (errogatibak, eleizpidea) kurutzea jasota (cruz alzada).

8.13.- Abadeai agindu barriak.

Erriko oiturai begiratzea fielaren eta abadeen arazoa zan.

Abadeak ondo jantzita, buruan koronilla eukela, tabernara joan barik, fraka ta kapela biribillagaz, karatula barik ibilli bear eben.

Baiña gauza bitxi bat aitatu bear dogu: Abadearen semeak alta-ra-inguruau egotea galazota euken.

1723n. urtean Fruiz'ko abadea zan Juan Bautista Gereka, seme baten aita lez agertzen eta lotsatu barik.

1675n. urtean asi ziran abadeak trebetzeko euren arteko Batzarrak eta Fruiz'en batzen ziran Gamiz, Fika, Fruiz, Arrieta eta Morga'ko abadeak. Olako batzarrak geure denporan galdu dira. Batzar orreitan jatea eta edatea galazota egoan eta batzarrera ez doanak zigor aundia eukan, exkomunikatu be egin eikean gotzai-nak.

8.14.- Alkateak.

Alkateai buruz be ba-dira aginduak. Sarritan eleizpean aukeratzen zan bat eta bear ba'da beronek agindu bearrean, beste bateri emoten eutson aginpide osoa. Arrisku aundiko joko ori debekatu egin zan.

Beste oker bat be agertzen da: Erabagiak kanpoan artu eta gero, joaten zirala eleiz-ateko batzarrera.

Batzarra meza-ostean egiten zan, fielak deituta eta kanpaia jota. Etxe-jaunak euken joateko eskubideak, baiña oneik urritu ziranean, guztiak artzen ziran, errentan egozanak be bai.

8.15.- Txiroen legeak.

Txiroak eta eskekoak beti errikoak izan bear eben eta txiroak kan-pokoak ba'dira ez ziran txiro lez artzen, “alperrak eta txarrak” ziran (vagos y maleantes).

1828n. urtean agertzen da agiri bat Ana Maria Orue-Etxebarria'ri buruz. Morga'n jaioa zan baiña Fruiz'en bizi. Non egin eikean eskea? Erri biak emoten eutsen ezetza.

8.16.- Eskolak eta maisuak.

XVIII gizaldiaren aurretik ez egoan maisurik. Aitaren ardurea zan semeari irakastea eta orretarako maisua ordaintzea.

Sarritan abadeak irakasten eben, edo sakristauak be bai eleizako irabazia urria zalako.

Martin Mendezona agertzen da maisu 1772n. urtean eta onen egin-bearra idazten, irakurten, kontuak egiten eta eleizako dotriñea irakastea zan eta ordaindu bear jakona bakotxak urtean anega lauren gari.

Geroago bide bat agertu zan maisu-agiria lortzeko. Kalaorrako Gotzaiñak emondako agiri baten agertzen da. Maisu izan gura dauanak, erriko abadearen aurrean azterketa egin bear dau eta onartua izan, gaiñera odol garbikoa eta leiñargia, noblea, izan eta oitura onak dituan gizona.

En el siglo XVIII tuvo lugar en Fruiz una fundación que tuvo sus consecuencias beneficiosas para la parroquia. Tuve en mis manos la escritura y la leí. Ahora supongo que estará en el Archivo Diocesano.

Un matrimonio cedió sus bienes a la parroquia (casa, huertas, montes) para que hubiera un cura más que viviera de esos bienes. El primero sería de la familia y los siguientes tenían que ser no judíos, ni mulatos, ni censurados. Sus obligaciones serían celebrar aniversario y misas por los fundadores difuntos, etc. Gracias a

esta fundación, con la venta de terrenos se financió en parte la nueva casa cural de la que hablaremos más tarde.

Por estas fechas la salud del pueblo no iba bien y se empezó a pensar en el salud-dador, pagado en principio por las familias.

Una enfermedad frecuente era la rabia que venía de mordeduras de perros. En 1768 aparece un saludador gipuzkoano y en 1752 tenemos en Fruniz al saludador Jorge Ramón Begue, pero era falso, fomentó escándalos y terminó en la cárcel.

Siguió el pago de los diezmos. En 1702 Francisco Lejarreta Orue en un documento nos recuerda diezmos mayores manzana, haba, alubia. Y entre diezmos menores trigo y maíz.

En 1789 de Fruniz se vendieron 400 fanegas de maíz y trigo.

Adquiere mayor importancia el castaño: alimento en asado o como talo, madera buena para muebles y sin polilla, es fuerte, bueno para carbón y para barcos.

Hay algo de txakolí, pero se prefiere el vino importado.

Se celebra gran feria de ganado el día Sallebantetxu.

Aparecen los montes de Diego-Aretxeta a los que siempre hemos llamado Diatxak, entre Gomoa y Montañe.

Se cita repetidamente el auzolan para reparar caminos y puentes.

Se insiste más sobre el monopolio del vino por parte del tabernero y el 1730 es juzgada Gabriela Olazar por vender vino traído de Bilbao en distintos pueblos. Se especifican las condiciones de subasta de la tabernazarra.

Aparecen normas sobre la vida de los curas: Deben vestir bien, llevar coronilla en la cabeza, no acudir a tabernas ni jugar, llevar pantalones y sombrero redondos y no usar disfraz. En 1723 Juan Bautista Gereka, párroco de Fruniz, tiene un hijo, sin dificultad por parte del pueblo, pero se prohíbe que los hijos de los curas estén en el altar durante la misa. Se obliga a los sacerdotes a conferencias litúrgico morales, reuniéndose en Fruniz los de Arrieta, Morga, Fruniz, Gamiz y Fica obligando a asistir bajo pena de excomunión (1675). Han existido hasta 1960.

Se prohíbe a los alcaldes tener suplentes y obligan a que las decisiones se tomen en reunión y ante Cruz parada.

De los pobres se dice que cada pueblo tenga los suyos. A estos se les permite mendigar, no así a gitanos y extraños que son tenidos como vagos y maleantes.

Aparecen los maestros. Al principio el padre debe pagar al que enseña a su hijo. Solían realizar esta labor, a veces, los curas y también los sacristanes que así completaban el sueldo exiguo que les daba el cura.

En 1772 aparece el maestro Martín Mendezona con la obligación de enseñar lectura, escritura, cuentas y doctrina cristiana. Cada alumno le paga un cuarto de fanega de trigo al año.

Más tarde aparece un decreto del Obispado de Calahorra en que se dice que el maestro debe ser examinado, aprobado y presentado por el párroco y no debe ser ni judío ni mulato y sí tener certificado de buena conducta.

9.- BESTE GIZALDI LARRI BAT (XIX)

9.1.- Olak eta errotak larriunean.

Olak indar aundia euki eben Fruiz'en eta irabazbide ona izan ziran. Bizkai'ko beste irureun olagaz alkartuta, burdin asko eta erreminta asko saldu genduzan Europa'ra.

Olarik ospetsuenak, Arrietakoa dan Olatxu'tik asita, Puntzebarri, Legarreta eta Ibarra. Azkenengo onen ondoan dago Arragoa izena dau-


kan etxea eta arragoa zan budiñea garbitzeko leku. Dana dala, Ibarra deritxon olea, Gamiz'en egon arren, muga-mugan dago eta beti izan eban zer-ikusi aundia Fruiz'egaz.

XIX gizaldia amaitu orduko ola guztiak ondatu ziran eta Fruiz'ek galtze orregaz irabazbide on bat gitxiago dauka.


Errotak egin ziran gero len olak egondako leku eta beste leku batzutan. Gogoratu: Beko-errota, Arrieta-barrenean, eta Gomoa lengoen gaiñera. Sanjurdi'n agertzen da beste errota bat.



Laba aundietan burdiñea lantzen.



Margazkia (Fortunyrena): gure burdiñea Tole-dora eroaten zan eta an ezpatak egin.



Labe aundia Sestao'n erreka-ondoan.

Errotak oraindiño bizi-bide dira XIX gizaldian eta oraintsu gelditu dira. Uste dodanez Olatxu'koa da lan egiten dauan bakkerra.

Errotak Bizkaia'n asko, geienak, dagoz geldi. Esan lei zerba itxaroten dagozela. Bear ba'da argi-indarra sortzeko, naizta txikiegiak izan ur gitxi eta jauzi gitxi daukelako.

Zergaitik galdu ziran gure oleak eta errotak jakin nai ba'dozu ona emen errazoiak: Europa'ko beste leku batzutan baso obeak, erreka aundiagoak eta ikatz geiago egoalako, emen gizaldi onetan laba aundiak edo "Altos Hornos" egin ziralaiko Bolueta'ko Santa Ana'gaz asita. Eta errotak, uruna eioteko bide barriak sortu diralako. Besteak azkenerantza doazela Errotabarri agertu zan, eleizatikurrean, baiña au be laster gelditu.

9.2.- Baserria oraingoz aurrera.

Baserriarentzat ez da gizaldi ain txarra XIX. Lendik soloetan artzen zanaren gaiñera gizaldi onetan patatea zabaldu zan asko.

Gizaldi onetan gaiñera 28 etxe asten dira esnea saltzen. Irabazbide au geroagokoa zala uste neban, baiña agiriak ori diñoe.

Baiña baserriko lanak be, zearo galtzen ez ba'da berakada nagusia izango dau gure gizaldi onetan. Nondik biziko ete dira gure baserriak?

Ba, euskaldunak asmanen aundikoak gara eta lantegiko lana sortu dogu eta gure baserritarrok, etxean zerbait egin eta lantegian zortzi ordu sartuta ondo biziko dira. Mungia'n lenengo lantegia Artetxe'rena izan da eta ona sartu dira Fruiz'tar asko. Artetxe'k benetako gogoa ekarri eban 1950 inguruan baserritarrai laguntzeko. Pozik artzen eban baserriko jentea. Beste lantegi batzuk, osteria, nekez artzen ebezan baserritarrok etxean nekatuta joaten zirala jakinik.

9.3.- Uriko semeak eta ugazamak.

XIX gizaldian beste larriune bat dago: Oituren beerakadea. Esaterako ume asko jaioten dira ezkontzatik kanpoan eta ume orreik, sarritan, eleiz-inguruan izten ebezan edo Bilbao'ko kutxa edo "inclusa'ra" eroan.

Eta beste alde batetik, asko zabaldu zan uriko umeak (inklusakoak) seme-alabatzat artuta ekarteko oiturea eta norberarena ez dan ume bateri bularra emotekoa.

Esaterako, 1820n. urtean agertzen da Jose Aurtenetxe. Onek 30 dukat ebazan zor eta Bilbao'ko umea azteko emoten dautsen diruagaz ordaintzen dau, agiriak diñonez. Antonio Butron eta Josefa Mendietako 1570 errial dabez zor. Agirian diñoe etxe-errentea ordaintzeko Bilbao'ko ume bateri bularra emoteagaitik ordaindu dautsena emongo dabela.

Gaur dagozan "Bilbao" abizen asko edo uritik ekarriko umeai ipiniak edo eleizan naiz abade-etxeen, naiz mediku-etxeen naiz maisuetxearen aurrean aurkitutako umeenak dira. Ba-dagoz Fruniz abizenak be eta ortik istorriak izan leitekez.

9.4.- Eleizea eta baseleizen ondasunak kentzen.

Gizaldi onen erdi-inguruan kendu eutsezan gure baseleiza ta parrokiari ondasunak.

Zergaitik? Atxakia iñoren onura edo probetxu barik, ilda lez, “amortizados” egozalako eta legeari orregaitik esaten jakon “desamortización”.

Baiña ondasun oneik lar merke, ezerezean, saldu ziran eta Bizkai’ko aberatsenak izan ziran erosi ebezanak eta oneik gero beste batzui saldu eutsezan irabazi onagaz. Barri oneik Jose Maria Mutiloa’ren liburutik artzen dodaz.

Gure parrokiari 1844n. urtean ondasun oneik kendu eutsoezan: Mintegietxe baseria, soloa ta basoa. Eroslea Juan Antonio Belasko izan zan. Etxebarri baseria, soloa ta basoa. Eroslea lengoa bera. Teilleria baseria. Eroslea Ignazio Ibarzabal.

San Lorentzo baseleizeari 1842n.’ean lau etxe kendu eutsoezan eta 1844n.’ean bi: San Lorentzo izeneko baseria, au Jose Salvador Lekerika’k erosi eban eta soloa, au be Juan Antonio Belasko’k erosia.

San Miguel’eri Baseleizearen izeneko baseria kendu eutsoen eta au be Juan Antonio Belasko’k erosi eban.

San Esteban’eri (Mandaluniz’en) solo bat kendu eutsoen eta Ignazio Ibarzabal’ek erosi eban. Solo orrek gaur be santuaren izena daroa.

Justo eta Pastor (gaur San Luis) ermiteari ezer kendu jakonik ez dot ikusi liburu orretan, baiña alboko landea Fabian Goirizelaia’ren izenean egoan eta au Fruiz’ko Idazkari edo Sekretarioa izan zan. Zelan eskuratu eban? Ez dakigu, baiña ondasun oneik Agiritegi edo registroan sartu barik egoten ziran lez, errez ulertzeko da zelan eskuratu eiken idazkaria. Gero onen ondorengoa gaur an etxe barria egin dauanari saldu dautsoe. Etxea egin aurretik alegiñak egin ziran baseleiza au saldu daigun (gotzaindegia bide dala), baiña ezetza emon zan.

Gure baseleizai ondasunak kentzeko egarria ikaragarria izan da eta gaur batek be ez dauko arra bat lur be.

9.5.- Aberedunen anaidia (hermandad).

1818n. urtean sortu zan aberedunen anaidia edo ermandadea. Ez genduan uste ain gauza zarra izan zeitekeanik. Araudi bat euken eta 1824n. urtean apurtu zan anaidia. Emen ostera gure ustea oraitsura arte bizi

izan dala da. Beste bat etxe erreen ermandadea. Au bizi dala-koan nago.

Olako erakundeak onak izaten dira zori txar baten alkar laguntzeko eta erria alkartzeko. Ez da izaten erreza arduradunak aurkitzea. Lana da.

9.6.- Arrobiak (kanterak) Botiola'n eta Berranko'n.

Arrobi edo kantera bi agertzen dira gizaldi onetan idazkietan. Bata Botiola'n, kare-arri ona daukana eta bestea gaur be or agiri dan Berranko'koa. Onek ofita-arria daka, bide barrieta azkenengo azala botateko onena. Baiña gurea geldi dagoan artean, Errogoiti'koak lan aundia egiten dau. Ofitazko arrobi au 1939n. urtean agiri baten Anastasio Legarreta'ren izenean agertzen da.

9.7.- Baserrietako zorrak.





Berranko'ko arrobi edo kanterak. Arri ona dauke, erribideen azken-azala botateko, baiña geldi dagoz.

Gizaldi guztietan agertzen dira baserriak zorrak ordaindu eziñik, eta sarritan baserria saldu-bearrean. Asturizaga (Astuitza) baserriko Juan Bau-tista Arrieta'k 1829n. urtean 18.431 errial dauz zor eta 1863n. urtean ordaindu eban.

9.8.- Baserrien egiturea.

Gure baseleizak zaindu bear doguzan lez, gure baserri zarrak be zaindu egin bear doguz. Or dago gure edesti edo istoriaren sustraia.

Gure baserri zarrak ur bitara dagoz, aurrean bizilekua ta kamarea eta atzean kortea ta lastategia. Aurrean, aparte, labea. Arratia'n, ostera, baserriak beian dauke kortea eta gaiñean bizilekua. Orrela bizilekua epelagoa da neguan, baiña iñoz be ez osasunerako ona.

Baserriari itzaltasun aundia jako gure lege zarretan: Iñor ezin leiteke

sartu baserrira. Jueza ba'dator be, urrin geratuko da eta udaltzaiña (aguzilla) bialdu. Au be ez da etxera sartuko, amar bat metrotik deitu baiño.

Ez dogu esan gure baserriak aurrean portalea daukela. Zenbat gauza egiteko balio dauan! Astoa, artoak garantzeko, lanabesak ezkegiteko lekua, garia joteko be bai, txarria ilteko be bai. Eta portalean izaten dira artu-emonik bearrezkoanak: Ezkontzeratako eskintzak, abere-tratuak; otseintzera doan semearen baldintzak...

9.9.- Politikazko larritasuna.

Emeretzigarren gizaldia oso larria izan zan politika-arloan. Gitxienez guda bi ondo odoltsuak izan doguz, Karlisten gudak.

Ez zan euskaldunen arazoa, baiña España'tarrak erregegai bi eukezan Carlos Fernando VII'ren anaia eta Isabel onen alabea. Baiña legeak ez eban izten andrazkoa erregiña izaten eta orduan Erregeak lege barri bat emon eban “pragmática Sanción” eritxona, alabea irregiña izan daiten. Ortik sortu ziran Karlos'tarren gudak. Lenengoa Bergara'n amaitu zan, Zumalakarregi il eta bere ordezko zan Maroto (Murzia'koa)'ren eta Esparte-



Lezamiz baserria Botiola'n.

ro'ren artean besarkadea emonda.

Zergaitik sartu giñan guda orretara, geurea izan ez da? Ba, Karlos'ek gure lege zarra zaintzeko bearbea emon ebalako, besteak ez. Bergara'ko besarkadeagaz amaitu zan: Espartero gudalburu liberalak bere espateagaz gure lege zarrak zaintzeko berbea emon eta guk izkilluak (armak) eurai emon. Ez eban bete berba ori eta gizaldi onetan lege zar guztiak kendu ebezan, Ekonomi-Arloko Ituna izan ezik.

Zer ekarri eban guda larri onek Fruiz'era? Negarra ta eriotzak ugari, eta guda galdu ebenen aldeko udalak eta baserriak zorretan geratuta, erantzun bear izan eben ordaintzeko. Karlistak ziran euskaldun zintzoak baiña gero, Franko'ren guda ezkerro, euskaldunen arerio biurtu ziran, batez be Eusko-Alderdi Jeltzalea sortu zanean.

Onelan amaitzen dogu XIX gizaldia, larri be larri, etaurrego atalean, luze ta zabal aztertuko dogu XX gizaldia, au be gudatsua ta larria. Beti bizi bear ete dogu estu eta larri? Es aitzu olako egoera guztieta gure etxe ta sendirik geienetan bakez eta zoriotsu bizi dala jentea.

Hemos dicho muchas veces en estas páginas que las ferrerías han sido muy importantes en la economía de Fruniz, más si las unimos al carbón y al bosque: Mucho hierro y muchas herramientas ha exportado Bizkaia desde 300 ferrerías como las de Fruniz. Recordemos sus nombres: Olatxu (municipio de Arrieta), Fruniz-Etxebarri (Puntzebarri), Ibarra con su caserío próximo llamado Arragoa que significa crisol o algo así (está en Gamiz pero muy cercano a Fruniz).

Pues antes del fin del siglo XIX dejan de trabajar todas las ferrerías con gran pérdida para la economía del pueblo.

Se crean molinos donde estaban antes las ferrerías, aprovechando el salto de agua, y se añaden a otros existentes como Bekoerrotxa (al pie de Arrieta), Gomoa y Sanjurdi, que aparece por estas fechas. Los molinos siguen existiendo pero apenas trabajan, a excepción de Olatxu. La Harino-Panadera se hizo con el monopolio y se acabó.

Recordemos las causas del fin de las ferrerías: Europa comenzó

a hacer su hierro y tenía ríos y bosques mejores que nosotros, se crearon los Altos Hornos comenzando con el de Bolueta llamado Santa Ana...

Y en cuanto a los molinos parece que están aún esperando algo. ¿Quizá una crisis de electricidad en la que aportarían algo? Pero tienen poca agua y poco salto.

En un siglo en que todo lo ancestral se tambalea, siguen en pie la agricultura y la ganadería. Incluso en este siglo aumenta la producción de la patata y comienzan a vender leche 28 caseríos.

Pero la crisis de este mundo rural está a la vuelta de la esquina. Queda la inventiva de nuestros labradores apoyada por la creación de la industria en Mungia especialmente Artetxe que acogerá a los labradores, con deseo expreso de dar salida a su problema. Así con lo que aporta el campo y con el sueldo de la fábrica las familias Fruiztarras pueden seguir viviendo. No peor que antes.

También en este siglo se vislumbra una crisis fuerte en valores éticos referentes a la familia: Hay parejas de libres (hoy llaman “de hecho”). Hay más nacimientos fuera del matrimonio, abundan los niños abandonados en el pórtico de la iglesia, en la casa del médico o del sacerdote... Y a la vez aumenta el número de hijos traídos de la inclusa o amamantados por nodrizas.

Algunos datos: en 1820 Jose Aurenetxe no puede pagar una deuda de 30 ducados y promete en documento pagarla cuando reciba el dinero de la inclusa por haber adoptado un hijo. Antonio Butrón y Josefa Mendieta deben 1570 reales y prometen en documento que pagarán con lo que cobren por amamantar a un niño. Muchos apellidos “Bilbao” proceden de niños expuestos y traídos de la Inclusa.

A pesar de lo difícil que estaba la vida, desde Madrid aparece la envidia que tienen por nuestros bienes y, como ellos tienen poder, van a arrebatarlos los bienes de nuestras parroquias y ermitas. Tomando datos del libro detalladísimo de Jose M^a Mutiloa sobre la materia podemos decir que la llamada desamortización nos arrebató nuestros bienes eclesiásticos con la excusa de que eran bienes muertos, sin producción, y que había que desamortizarlos. Estamos

hablando, básicamente de Mendizabal.

He aquí los bienes arrebatados en Fruniz, que son una pequeña parte de la inmensa cantidad quitada a Iglesias y comunidades en toda Bizkaia: el 1844 quitaron a la parroquia de Fruniz el caserío Mintegietxe con huertas y monte. Lo compró Juan Antonio Velasco. Y el caserío Etxebarri con huerta y monte, siendo el mismo el comprador y la casa Tejería que compró Ignacio Ibarzabal.

En 1842 quitaron a la ermita de San Lorenzo cuatro casas y otras dos el 1844. Fue comprador en la subasta Jose Salvador Lequerica.

A San Miguel de Botiola le quitaron un caserío que compró Juan Antonio Velasco.

A San Esteban de Mandaluniz le quitaron una huerta, que aún hoy sigue llamándose San Esteban-soloa. La compró Ignacio Ibarzabal. Quizá este hecho provocó el hundimiento de la ermita que pronto dejó de existir.

Nada encuentro sobre la ermita de los Santos Justo y Pastor (hoy llamada San Luis, que está en el municipio de Arrieta). Pero sabemos que la campa, que seguramente no estaba registrada, pasó a ser de Fabián Goirizelaia, Secretario del Ayuntamiento, cuyos descendientes la han vendido recientemente para construir la vivienda que está en la cercanía de la ermita, recién construida. Quisieron comprar la ermita pero nos negamos a venderla, como es natural.

En este siglo se creó una Hermandad de ganaderos en 1818, pero dejó de funcionar seis años más tarde. Y creo que luego se creó otra y no sé si sigue aún funcionando. Es un buen modo de unir a los berritarras, pero no es fácil el funcionamiento.

Aparecen dos canteras, una de piedra caliza en Botiola y otra de ofita en Berrankoa.

Presentamos como muestra de las dificultades económicas de este siglo el caso de la Casa Asturizaga (Astuitza) cuyo dueño Juan Bautista Arrieta el 1829 debía 18.421 reales que llega a pagarlos en 1863.

Unas observaciones sobre la estructura del caserío que es tradicional en Fruniz. Es preciso conservar los caseríos antiguos igual que las ermitas, porque ahí están las raíces de nuestra historia.

El caserío hasta esta fecha se construye con madera que sostiene

a los ladrillos. Pronto desaparece la madera. Tiene en la parte delantera, además del portal, cocina, carrajo y cuartos y encima el camarote. Y en la parte trasera cuadra, y encima el pajar. Esto nos parece natural, pero en Arratia está delante la cuadra y encima con escalerilla exterior, la vivienda. Así se calienta la casa en invierno con el calor animal, pero tanto en verano como en invierno es menos sano.

Al caserío se le tiene el máximo respeto en el Fuero Vasco. Es inviolable. Cuando lo visita un juez, por ejemplo, deberá quedar lejos de él y enviar al alguacil. Este se quedará a varios metros y llamará al dueño.

Este siglo es escenario de graves confrontaciones políticas, especialmente con las dos guerras carlistas. No eran consecuencia de problemas de nuestro Pueblo, pero nos involucramos en él porque el posible Rey Carlos se mostró a favor de los fueros y los liberales en contra. En la primera guerra tuvo lugar el Abrazo de Bergara para terminarla, pero, aunque entregamos las armas de buena fe, fuimos traicionados. Espartero prometió defender los fueros con su espada, pero él mismo y sus sucesores quitaron todos los fueros, quedando sólo el concierto económico. Hubo una segunda guerra, que la perdimos. En ambas guerras lucharon y murieron nuestros jóvenes, y una vez terminadas las guerras el Ayuntamiento de Fruniz tuvo que embargar bienes para pagar las deudas y también los propietarios que eran carlistas, sufrieron embargos. Eran entonces los carlistas los amigos de nuestro Pueblo, pero luego se fueron alejando de este ideal a consecuencia de la Guerra franquista y de su oposición al nuevo Partido EAJ / PNV que se crea a finales del siglo.

Así terminamos la historia ajetreada y penosa del siglo XIX para pasar al estudio, sin prisas, del siglo XX que es más nuestro porque en él hemos vivido casi toda nuestra vida. Será también un siglo de guerras y preocupaciones en lo social, pero no hay que olvidar que mientras ocurren todas estas calamidades, la mayoría de nuestras familias viven en la paz de la familia, dentro del respetado caserío.

10.- GURE ALDIKO GAUZAK (XX GIZALDIA)

10.1.- Lengo jauntxuen ordez.

Antxiñako jauntxuak amaitu ziran, baiña gure aldi onetarako garrantzi aundia daukan sendi bat daukagu: Frantzisko Bastarretxea Goikoetxea, aita eta semea ziran erriari laguntzeko gogoa agertu ebenak, baiña ez beti euren-tzat ezer billatu barik.

Fruiz'tar au Abana'ra joan eta an dirutza aundia egin eban eta Fruiz'ko plazatikurrean Etxe Eder bat egin eban, abaneruen palazioa esaten geuntsona. Aitak egin ebazan alegiñak errian bere eritxiak aurrera eroateko, gero agertuko doguz, baiña esan dagigun zerbait semeari buruz.

Bigarren abaneru au Fruiz'ko sakristau eta kanpai-jotzaille txalogarria zan Jose Bastarretxea'ren lengusua zan eta eleizan asko laguntzen eban onen anaia zan Pedro Bastarretxea'k. Au zan abaneruaren txoferra ta laguna. "Hispano Suiza" markakoa zan berebil eder bat eukan eta berebil orre-tan joan gintzazan lenengoz Bergara'ko Seminariora Jualiantxune deritxon etxeko Sebastian Rementeria ta Isidoro Iturbe Fruiz'ko parrokoa ta Kristo-bal Oñarte-etxebarria Gamiz'koa lagun genduzala, Lezamiz'ko Jose Antonio Mallona ta ni.

Abaneru au gaztetan Luisa Rekalde'gaz maitemindu zan, baiña gura-soak ez eben begiko ezkonta ori, bear ba'da Luisa'k abaneruak baiño ondasun gitxiago eukazalako. Abaneru gazte au aitak Abana'ra bialdu eban maitemin ori aiztu eikion.

1950n. urtea baiño lentxuago etorri zan Abana'tik eta ordurako Luisa barriro ezkondu, sendi ederra asi eta alargunduta egoan.

Etorri eta laster abanerua gaisotu egin zan eta luzaroko ez zala ikusten zan aldian, Luisa alargunagaz ezkondu zan. Andik laster il be bai.

Ondasunik geienak, Abana'koak eta emengoak, Luisa'ri itzi eutsozan, baiña emengo senideai be bai batzuk. Fruiz'en illeta ospatu zanean, diñoenez, Luisa palazioan geratu zan eta illetea egiten zan artean Palazioan egozan bitxiak eta olakoak Mungia'ra, Villa Luisa eritxon bere etxera, eroan ebazan. Etxe au oraintxe izan da botateko arriskuan, baiña, azkenean ez botatea erabagi da eta etxearen itxurea zaintzen dala barruan bizilekuak egingo dira. Luisa'ren sendikoi erosi egin jake etxe au.

Ainbat artu-emon izan neban Luisa'gaz: Udaletxearen ondoko etxea egiteko lurra saltzeko, eleizaldean dagoan iturria egiteko baimena eskatu bear izan gauntson, bere sagardia bidean egoalako (sagardian ura artzeko eskubidea eta bertan artze-lekua ipinteko baldintza ezarri euskun eta orrelan egin zan). Andrea trebea ta zurra zan.

10.2.- Telleria ta Taberna zarra bota.

1915n. urtean bota zan, abanerua eta Udal-batza batera zirala. Or amaitzen da Esperantza-ondoan egoan Teilleria'ren eta Taberna Zarraren edesti luzea.



Eskola zarra, abaneruak eta udalak egiña. Or irakasten eben D.^a Maria'k eta D. Anjel Garcia'k 1954'an.

Taberna zarraren ordez Abaneruak Udal-Batzari gaur Plazan dagoan udaletxe barria emon eutson eta udaletxearen barruan gaur or dagoan Erriko Taberneña. Palazio etxearen ondoan eskola barriak egin ziran.

Baiña taberneak bere monopolioa galdu eban. 1940n. urtean lau taberna dagoz errian: Angel Irigoien'ena, Migel Uriarte'rena, Maria Kruz Lopategi'rena eta Jesus Legarreta'rena. Eta jatetxe bi: Frantziska Uriarte'rena eta Paskuala Batiz'ena. Ori diñoe agiriak. Gaur iru taberna dagoz: Erriko, Artenetxe'rena eta Azpuru'koa. Irurak dira jatetxeak: Erriko, Artenetxe'na eta Azpuru'koa.

Eleizakoa zan lurra erosita (orretarako zalako merke saldu zan: 25.000 pezetan), eskola barriak egin ziran 1955n. urte inguruan. Gaur Fruiz'en ez dago irakaslerik, ez eskolarik eta ikasleak Mungia'ra joaten dira, irakaskintza obeto eratzeko.



Eskola barriak, gaur kultur-etxe. Eleizeak salduko lurrean egin ziran 1960 inguruan

10.3.- Eleizako ate ederra.

Eleizpean daukagun Erromaniku-tankerako ate ederra or dago 1200n. urtea ezkero baiña iñok ez ekian ori. 1949n. urte inguruan,

karezkoa zan ate orretan zeozer ikusi eban Isidoro Iturbe abadeak eta aiztoagaz apur bat arakatu eta edertasun ori aurkitu eban. Benetan aurkitze ederra eta ez gure eleizan azkenengoa.

Zergaitik estaldu ete eben gure aurretikoak edertasun ori?

Ez dakigu ziur, baiña antza dagoanez arri edertu orrek daukazan zulotxuetan izurri edo peste gaisoa ostentzen zalako.

10.4.- Gudaldi negargarria.

Gizaldi onetan izan dogun jazokizunik mingarriena 1936n.'eko guda izan da.

Alde batetik naikoa ondo joan zan gauzea Fruiz'en. Eleizea ez eben apurtu. Ori jazo zan Mungia'n, Gatikan eta Jatabe'n eta Gamiz'en be torrea bota eben eta eleizea be naikoa apurtuta itzi.

Baiña bildurgarria izan zan Sollube'ko gudaldi luzea. Guk Zamudio'tik ikusten gendun 1937'ko bagillean mendia ketan egunetan.

Ona emen gudan il ziranen izenak, eleizako liburutik artuta. Bearba'da, geiago be izango ziran.

Markos Andikoetxea Lekerika (Bizkargi'n il zan).

Jesus Lotina Aurtenetxe (fusillaren tiroz).

Agustin Uriarte Rementeria (Bizkargi'n).

Diego Andikoetxea Uriarte (Andeko'n, obus batek).

Toribio Sagasti Ibinarriaga (Obus batek au be).

Jesus Lotina Gezuraga (Esku-bonba batek).

Juan Uriarte Mandaluniz (Lerkaien deposituan, lerketa batek) (Toledo'n).

Guztiz Zazpi.

1954n. urte inguruau España'tar batzuk eterri ziran gure illerrian gudan illekoen gorpuak egozala ta Valle de los Caidos'era eroateko.

Gure illerrian alboko atetik sartuta bertan egoan burdiñezko gurutze bat lurrean eta nik entzunda neukan an egozala gudan (bear ba'da Sollube'n) ildakoak.

Arakatu eben lurra eta gorpu-ondakiñak aurkitu be bai, baiña bate'k beintzat "zazpiak bat" ikurdia eukan ugalezko garrikoan eta nik

esan neutsen: Au eusko gudaria zan. Eta eurak esan eusten: alde bie-takoak eroateko egindua daukagu.

An egongo da ba, Valle de los Caídos' en illobiren bat Sollube' n ildakoai eskiñia.

Guda-aurrean Bonifazio eta Katalin Martinez' en etxearen egon zan ostenduta Jose Maria Areilza, Motriku'ko kondea, baiña gudea etorri baiño lenago Franco'tarren aldera igaro zan eta laguntzaille Miguel Uriarte ta Pedro Basterretxea izan ziran.

Guda-osteko urteak naikoa gogorrak izan ziran eta espetxean be ainbat sartu ebezan.

1975n. urtea ezkerro barriko demokrazi-giroan bizi gara, Franco il zanetik, esango dogun lez, Udal-Batz barriak lan aundiak egiten dabe, Alderdi politikoak bide dirala.

10.5.- Eleizea eguneratzen.

XX gizaldi onetan eleizearen giroan izan dan jazokizunik aundieta Batikano'ko bigarren batzarra izan zan. Onek aldakuntza aundiak ekarri ebazan. Ikusgarrienak eleizki-zunetarako.



Altarearen santu-lekua: erdian Salbadore, alde bietan Moises eta Elias, berago San Juan eta San Pedro lotan eta goi-goian Kalbarioa. Dana da XVI gizaldikoa.

Era barrian ospakizunak egiteko, eleizea bera egokitzea bear zan. 1963n. urte-inguruaren egin zan ori. Ez dakit dana ondo egin zan, baiña beintzat gogo onagaz eta ondo pentsauta.

Lau santu-leku edo retablo egozan eleizan, Ama neka-tsuarenaren ezkerrean, beste bi alboetan, Erremedio'ko Andra Maria'rena eta San Sebastian'ena. Albo bietako



*Erremedio'ko Amaren irudia. XIII
gizaldikoa. Bagoña'koa baiño
zarragoa ta ederragoa.*



*Albo bietan sagrario bi itzi genduzan,
bata Gure Jauna dagoana eta
bestea bateoetarako gaiak. Eskoian
atea berbizkundearen irudiagaz eta
santu bi, ezkerrean atean Berbiz-
kudea.*

Oraintsu, 1998n. urtean eleizea margotu egin dogu eta inguru osoan eukan zokaloa kendu, rodapie txiki bat itzita. Orrelan ageak argiago agertzen dira.

Eskoi'ko orman zulo txiki bat agertu da ate ta guzti eta dagoan lez itzi dogu. Ez dakigu ez zer dan ez zertarako izan zan lenago.

Orain azpiko ola dago naikoa txarto eta iñoz barria ipinten ba'da, or agertuko dira antxiñako illobiak eta bear ba'da beste gauza asko eta

retabloak txurrigera-tankerakoak ziran, ez balio aundikoak. Eta iru oneik kendu egin genduzan, santuak zainduta eta orman agertu ziran ornazin bietan, batean sagrarioa eta besten oleo-lekua ipiñi genduzan. Atetxu biak berbizkundearen irudia dauke eta ezkerrekoak beste santu bi. Ez dakigu nortzuk diran.

Altara nagusian, gaur dagon irudigia ikutu barik itzi gendun eta azpian egon ola ta gure Jauna agirian ipinteko lekua eta altarea bera kendu eta arria agirian ipiñi. Sagrarioa albora eroan gendun.

Altarea bera barria egin gendun arri landu audi bategaz eta oiña arri tikiaz osotu. Lengo altara-maia zaintzea obeto izango zala uste dot gaur.

Ezkerreko aldean bateo-ontzia ipiñi gendun, bateoak ikusteko moduan egi teko. Len atzean egoan bateo-lekua eta ez dakik an egoan ontzia zelakoa zan, baiña ipiñi dan barria ez da ain egokia. Altarea bera be ez.

Eleizearen erdian pulpitua egoan eta kendu egin gendun. An dago oraindiño azpian eukan arria.

eleizea margotu egin dogu eta inguru

osoan eukan zokaloa kendu, rodapie txiki bat itzita. Orrelan ageak

argiago agertzen dira.

antxiñako eleiza txikiaren oiñarriak be bai, baiña olako lana egiteko Aldundiaren baimen berezia bear da eta arkeologoak ikusi bear dabe. Ez dakit noiz izango dan ori.

10.6.- Eleiz-oiturak eguneraztzen.

Gaur oitu egin gara eta konturatu be ez gara egiten zelako aldakuntzak egin diran elezkizunetan: Len mezea dana latiñez esaten zan eta bitartean erosarioa erreza edo itzaldia egin. Abadea mezan erriari atzea emonda egoten zan. Eleizea, aurrean gizonak dirala, erditik atzera sepulturaz beterik egoan eta supulturak diruagaz, erresponsibleak errezzatzeko. Etxe bakoitzak eukan sepulturan kandelan biztutenziran.

Ori dana kendu gendun eta eleiza osoan banku barriak ipiñi, guztiak batera eta bear danean jesarrita mezea entzuteko. Len sepulturetan andra bakoitzak bere jesarlekua, belaukikatzeko be balio ebana eukiten eban.

Jazokizun barregarri bat:

Guztiak batera zutundu, belaunikatu eta jesarri egitea eskatu genduanean, asieran ez zan izan gauza erreza ori lortzea. Bakoitzak nai ebana egiten oitura egozan. Bein baten, beste abadeak mezea esaten eban artean, ni azalpenak egiten nengoan eta esan neutsen:

Orain guztiok zutundu!

Zutundu ziran gizonak, eta andrak be bai, euren sillatxua aurrean eukela. Baiña andra bat, neure ustez, belauniko egoan eta bertara joan eta siñua egin neutsan zutuntzeko.

Berak esan eustan: -Jauna, txikitxua naz, baiña zutunik nago.-

Eleizarako laguntza era askotara emoten eban erriak. Esaterako, erreponentsoakaz, kanpoen bedeinkaziñoa egiten zanean, Santa Ageda egunean sakristauak arratsalde osoa egiten eban kanpaiak joten eta etxerik etxe batzen eban. Geienak arrautzak emoten ebezan. Odeiaren bedenkapena be egiten zan eta gero gizon batek etxerik etxe batzen eban odeiarena. Olako oitura geiago be ba-egoan. Esaterako illetea egiteko gorpua etxetik ekarten zan abadea abesten doala. Aurretik

urredia esaten jakon andrea, gero kurutzea, gero il-kutxa edo atauta, gero abadea eta urrengo gizonezko senideak eta auzoak edo lagunak eta urrengo etxeko andrak, auzokoak eta lagunak. Bide-kurtzeetan abadea gelditu eta errespontsoa abesten eban eta bere bonetara (kapelara) dirua batu. Orreik gauzak egiteak lotsatu egiten nindun. Egia esan oso antxiñako oiturak dira eta lastima izan da galtzea. Baiña ori dana kendu eta parrokiko etxe bakoitzari urteko kuota bat ezarri jakon. Fruiz izango zan ori lenengo egin eban erria eta arrezke-ro erri guztiak jarraitu dauskue orretan, Meñaka ta Larrauri'k izan ezik.

Beste arazo bat illetea egoanean ateraten diran mezak ziran. Antxiñako oiturea au be eta erri guztietan dagoana. Au ez gendun kendu, beste errietakoak be etorten ziralako. Oitura orregaz jarraitzen dogu eta etxekoai emoten jake mezea atera dabenen zerrenda edo listea. Au ez da gauza polita, baiña famili askok eskatu egiten dabe eta iñoz emotea itzi danean, ez dira konforme egon. Meza-diru orreikaz abadeak egunean meza bat emoten dau eta geiago ba'dago parrokirako izaten da. Gaur meza bakoitzagatik emoten dan limosnea 700 pezeta da.

Fruiz'tarrak emon daben erantzuna oso egokia da eta esker ona agertzea dagokit une onetan. Aldakuntzak ez dira izaten errezzak.

Ez dogu aitzu bear gaur iru Fruiz'tar Gotzain dirala: Mons. Juan Maria Uriarte (Donostia'koa), Mons. Zelestino Orbe (Yurimaguas-Peru)'koa eta Mons. Iñaki Mallona Arezibo (Puerto Rico'koa).

10.7.- Abade-etxe barria.

Fruiz'era bialdu ninduenean, 1954n. urtean, agustuaren 15'ean sartu nintzan, auxe esan eustan orduan Eleiz-Barrutian idazkaria zan Aurtene-txe'tar Frantzisko Meñakarrak: An abade-etxe barria egin bear dozu, eta ez abade batentzat. Fruiz'en abade bi izango dira eta ez dago ondo batek bakkrik etxea eukitea.

Sartu nintzanean, Bonifazio ta Katalin Martinez'ek emon eusten etxea eta aurreko abadea izan zan Isidoro Iturbe'k, bera be antxe bizi zan eta, muebleak be itzi eustazan.

Ez zala luzarorako izango esan neutsen, etxe barria egiteko gogoa neu-kalako, baiña ez eben sinistu. Orduan eterri jatan etxeko lanak egiten ain-laguntza ona emon eustan Oruene'ko Petra Legarreta Etxebarria eta etxe-barria sartu eta laster eterri zan monagillo be izango zan Iñaki neure lobea. Mutil ona.



Fruiz'en gaur iru gotzain daukaguz: Donostian bat, Peru'n beste bat eta Puerto Rico'n irugarrena. Sakristian dagon iruren argazkia da au.

1956n. urte inguruan egon nintzan Emiliano Amann arkitektoagaz eta onek egin eban etxe barria egiteko Planoa. Gero bera ez zan eterri baten baiño eta esan eban etxearen erakundea, berak asmatua, ez jakola atsegin, inguruko etxeakaz ondo alkartzen ez zalako. Orregaitik aldakuntza txiki bi eskatu neutsazan: Bata, eleizeagaz batera barik, apur bat okertuta egiteko eta bestea, etxe-azpian ipiñi eban sotanoa aunditxuagoa egiteko beian batzar leku bat izan daiten. Olan egin ziran gauza biak, baiña beko lokal orrek asko karatu eban etxea, arri landu askoz geiago bear zalako, eta gaiñera ura sartzen zan. Etxearen ondo-ondoan egoan errekeari beste bide bat emon geuntson, baiña alperrik, ura sartzen da gaur be. Amann'ek esan eustan, Bilbao'n be ba-dagozela olako tokiak errekeea baiño beerago. Baiña gaur arte ez da zuzendu arazo ori.

Laguntzaille lez, aparejadore lez, Mungia'ko Jorge Ojinaga artu gendun eta onek ondo lagundu euskun. Migel Uriarte ta au dira etxea egitean ondoen lan egin dabenak.

Etxea egitea nori ezarri jakiteko Bilbao'n egin zan erromata, Instituto de la Vivienda'n. Migel eta beste bat, Luis Martinez Aurtenetxenkoaren anaia agertu ziran eta Migel'eri ezarri jakon. Migel'egaz etxe-gintzan ibillitako beste batzuk aitatuoko dodaz: Jose Etxebarriko, Inas tabernakoa, Jesus Legarreta-Etxebarria Aurreko Etxekoa, Kruz Etxetxikerreakoa ta beste batzuk.




Abadetxe barria: Lenengo arria bedeinkatzen

Egun pozgarria izan zan lenengo arria ipiñi genduanekoa. An sartu genduzan eguneko izparringia eta orduko diru batzuk.

Etxea egitea milloi bat inguru kosta zan eta ez zan izan gauza erreza ori ordaintzea. Instituto de la Vivienda'k emon ebazan berreun bat milla pezeta, baiña gero errenta lez illero ordaintzeko. Gero lur oneik saldu ziran: Plakone-aldean baso bat, Lomerika'ra bidean beste baso bat, Esperantza-aldean bidearen ezkerretik beste solo bat, bidearen eskoitik beste solo aundiago bat. Uresandi izeneko soloa zati bi egin gendun, erdia eroi eben

Errotabarrikoak eta beste erdia abade-etxearen ortu lez geratu zan. Errotabarri-alde soloaren zati bat eskolak egiteko emon geutsan merke Udal-Batzari (25.000 pezeta). Beste zati bat Anastasio Garai'k eroi eban eta antxe egin eban etxe barria. Etxea bedeinkatu genduanean apari eder bat egin gendun eta ostean al genduan moduan bertsoetan ekin be bai. Orain plazatxua eta solo bi geratzen dira, Elexoste eta Errotabarrialde'ren zatia. Oneik lau bizileku egiteko dira eta oraintxe gabiltz saltzen. Biak ia 40.000 milloa emongo dauskuez eta diru ori lenagokoen etorri lez zaintzea nai genduke, iterasakaz parrokiaren etorriak ugaritzen dirala.

Orrelan amaitzen dira Fruiz'ko parrokiaren ondasun guztiak eta ez da geratzen torre-ondo plazatxua, len sakristan-etxe zana, eta Abade-etxe barria baiño. Bizileku bi oneik errentan emonda dagoz eta sarrera bat dira parrokiarentzat.



*Fruniz'en parrokiko batzordeagaz, erromanikutankerako arku ederraren aurrean.
Laguntzaille zintzo oneik parrokiko alkartea, auteskunde bikoitzean aukeratuak dira.*

1965n. urtean, nik Fruiz'tik urten nebanean, abade etxea ordaindua geratu zan eta ordaintzeko, 65.000 pezeta, eleizan egin zan lana.

Gaur, zar saridun emen nago. Talde on bat dot lagun.

10.8.- Uri-auzoen arazoa.

Erdi-arotik, 1300n. urte-ingurutik, etorren arazoa zan au. Fruiz'ko famili asko, Fruiz-barruan egon arren, Mungia'ko uriarenak ziran eta ori eurentzat oker bat zan, gauza askotarako Mungia'ra joan bear ebe-

lako eta Fruiz'entzat be kaltegarri, sarrerak galtzen ziralako. 41 famili eta guztiz 205 biztanle ziran: Andekobeitia, Lemorika, Batiz Goikoa, Andeko-Aurtenetxea, Andeko Aurrekoetxea, Etxetxikerra.

1995n. urteko martiaren 30n. egunean Bizkai'ko Batzar Nagusiak erabagia artuta, uriauzoak Fruiz'ko biurtu ziran.

10.9.- Baseleizak gaur.

Bein baiño geiagotan esan dogu zelako garrantzia dauken baseleiza edo ermitak gure erriaren edestian sustrai diralako. Ardura aundia artu dogu baseleizak konpontzeko.

Eleizatikurrean dagoan kurutzeperioagaz asiko gara. Au Udalari emonda dago illeria illeria dan arterako eta euren ardurea da konpontzea. 1647'an egiña da eta 1732'an egin ebazan Domingo Kafranga'k zurezko balaustreak.

San Lorentzo Andeko-gaiñean dago eta santua amazazpigarren gizaldi-ingurukoa da. Orain urte bi konpondu dogu iru bat milloi pezeta kostata. Ortik milloi bat eskas emon dau Eleiz-Barrutiak eta beste guztia parrokiak. Erritarra lanean lagundu dabe. Jon Aurtenetxe izan da konpontzaillea, Eleiz-Barrutiko aparejadorea dan Jose Floren Urtxurtu tekniku dala.

San Lorentzo egunean jai ederra egiten da eta ostean janariak emoten dira. Naikoa ondo geratu da, naizta kanpaiarentzat lekua egin barik geratu, dirua eldu ez zalako.

1560n. urtean Maria Otxoa de Lomaika'n meza batzuk emon ebaza-la agertzen da agirietan eta kanpai-lekua eukala diño.

1758n. urtean ermita barria egin zan eta egillea Antonio Vega izan zan. 4.825 errial kosta zan.

Botiola'ko San Migel auzoaren alboan dago. Len erdian eukan orma bat eta aurrea zan eleiza eta atzea eleizpe, baiña 50n. urte inguruau erdi-ko ormea bota eta eleiza aunditu egin zan. Urte batzutan, 1964'tik 1988'ra artea igandeetan mezea esaten izan da. Santua konpondu eziñeko eran egoala-ta saldu egin zan eta orain barria dauke. Antonio Vega'k egindako Eliza bi oneik ez dagoz, besteari lez, sortaldera begira.

Gaurko ermita au 1758n. urtean egiña da. Lengoa amazazpigarren gizaldikoa zan eta barria Antonio Vega'k egin eban 3.175 errial kostata. Eleizatzua ondo dago.

Mandaluniz'en, lenago esan dogun lez, San Esteban egoan eta gaur be an solo batek izen ori daroa.

Ez dakigu zelako zan baiña 1732n. urtean bota egin bear izan eben. Ara zer diñoan 1758n. urteko agiri batek: Ermita au Gotzaiñaren aginduz bota da, erreinta gitxi emoten ebalako.


Arrieta'ko auzoa dan Lekerika'n dago Fruiz'ko parrokikoan dan San Justo eta San Pastor'en baseleiza. Au be konpondu da lau milloi ordainduta. Gitxi gora bera, milloi bat emon dau Arrieta'ko Udalak, beste milloi bat Eleiz-Barrutiak eta milloi bi Fruiz'ko parrokiak. Polito geratu da eta 1678n. urteko kanpaia dago bertan. Bala-zulo bat eta arrakala bat daukaz, esanda dagoan lez, eta orain Alemania'ra bialdu da urtu barik konpontzeko. Bizkai'ko kanpainen artean zarrenetarikoa da.



Abeneruak eta Udal-batzak batera egin eben Udaletxea eta barrenean erriko taberna.

10.10.- Erri-zerbitzuak gaur.

Lenago esan dogu erri-agintariak serbitzu gitxi emoten ebela errian. Udaletxerik be ez euken. Baiña gaur gauzak asko aldatu dira: Udaletxe barria egin zan abaneruen laguntzagaz. Lenago beste bat egoan 1883n. urte-



Eskola zarra, abaneruak eta udalak egiña. Or irakasten eben D.ª María'k eta D. Anjel García'k 1954'an.

koa eta au 1916n. urtean egiña da. Eskola barriak be egin ziran, gero barriagoak eleizeak merke saldutako lurrean. Gaur kultura etxe biurtuta dagoz. Illeria eleizeari erosi eta nitxoak egin dira panteoirik ez daukentzat, erriko tabernak bere lanean jarrai-

tzen dau antxiñatik. Or emon eban laguntzagaitik Frantzisko Basterretxea “erriko seme ongille” izendatu nai izan eben, baiña ez eban artu izendatzetori. Pelota-lekua egin da Eskolak egiteko erositako lurretan, ugartegia edo pisziña be egin da Luisa Rekalde’ri erositako lurretan, Futbol-zelaia be egin da eta idi-demak egiteko probalekua be bai. Botiola’n auzo-eskolea egoan eta osasun-laguntza biurtuta dago, Lepotiko zubia zabaldu egin da eta beste zubi batzuk konpondu. 1885n. urtean Mungia’tik Gernika’ra bidea egin zanetik, bide asko egin dira errian. Lenengoa Botiola’ra, 1950n. urte-inguruan.

Aspaldion egiten dau lan ederra Fruiz’ko udalak erria serbitzeko. Bear ba’da bultzada audi bat emon ebana Santiago Rementeria alkatearen aldia izan zan.


I r a k a s k i n t z a - arloan Irakasle Goragarri lez Maria Rementeria gogoratu bear da eta urteetan



Eskola barriak, gaur kultur-etxe. Eleizeak salduko lurrean egin ziran 1960 inguruan



Eskola barriak egin ziran toki beratan pelota-leku eder au egin zan.



Fruiz'en ugerlekua ta saski-baloi lekua be ba-dagoz

ezagutu dogu emen Angel Garzia. Gaur erreztasun audiak daukez gure gazteak lenengo maillan, erdi-maillan eta Ikastetxe Nagusira urreratzeko. Geienak lortzen dabe Ikastetxe Nagusiko Titulo'ren bat.

10.11.- Abadeak.

Gogoratu daiguzan XX gizaldiko abadeak eta batzui buruz zerbait esan.

1900-1913: Felix Torrealdai eta Jose Maria Barrena.

1913-1935: Luziano Omaetxebarria, Pedro Omaetxebarria ta Martzelo Apraiz.

1935-1938: Felipe Gangoiti.

1938-1954: Isidoro Iturbe ta Jose Domingo Arin.

1954-1965: Martin Olazar, Mariano Gandarias, Jabier Ozerinjauregi.

1965-1990: Jabier Ozerinjauregi.

1990-2001: Martin Olazar, Esteban Orbe, Juanjo Elezkano, Txabi Ikobaltzeta (oneik taldean) inguru errietarako eta Mungiarako.

Oarrak: Jose Maria Barrena abade ezaguna izan zan, eitzari edo kazari ona eta burletia. Bein baten erbiari danbadadea egin eta zauritu barik arrapatu eban. Iñok oker pentsau ez egian zugatzetik eskegi eban tiroa emoteko eta erbiak iges egin eutson. Beste bein Gizon bat Mugerre-Etxebarritik-edo mezara etorri zan, baiña urtekeran bere bruza artu-bearrean emaztearen gonea artu eban. Txabolan artu eban Bruz bat eta gonea bertan itzi. Barrena abadeak eleizpean burla egin eutson: I, egia dok mezara andrearen gonakaz etorri azela? Gizonak erantzun eutson: Isillik egoadi eta euk be orreik bularreko babak kendi egizak. (Antza Barrena abadearen sotanea be ez zan garbi-garbi egoten).

Beste bein, Barrena pulpituan berbaldia egiten egoala, eleizako atea zabalik egoan lez, bere soloan sagarran ostutenean egozala ikusi eban. Egiten ebazan orroak lapurren aurka, baiña alperrik.

Felipe Gangoiti abadea mungiarrar zan, Motxoanekoa, baiña Fruiz'en be ba-eukazan senideak. Gudea amaitu zanean zigortu egin eben beste 500

abaderen antzera eta Asturias'era joan bear izan eban.

Jose Domingo Arin Gipuzkoatik ona zigortuta bialdu eben eta anai abadea be tiroz il eutsoen.

Au idazten dauan Martin Olazar be zigortuta bialdu eban Pablo Gurpe-de Gotzaiñak Fruiz'tik kanpora 1965n. urtean. Zigortzeko errazonia Donostian egiteko zan abade baten epaiketara joatea izan zan.

Jabier Ozerinjauregi Berriz'tik ona bialdu eben zigortuta eta emen be ez eutsoen emon gura izan parrokoaren izendapenik. Arduradun lez egoan.

Ikusten da ba zelako sasoi txarra izan dan abadeentzat Franco'ren gudosteak. Larria benetan.

Emen il zan Jabier Ozerinjauregi, uste barik, 1990n. urtean.

10.12.- Alkateak

Fruiz'ko Alkateak edo ordezkoak (1900-2000)

Alcaldes de Fruiz o suplentes (1900-2000)

Jose Antonio Mallona Gondra

Jose Maria Goirizelaia

Damaso Abásolo (Goikoetxe)

Felix Muruaga

Nicolás Elorriaga Arriaga

Markos Rementeria Arrien

Domingo Uriarte Erezuma (1941-1945)

José Etxebarria Basterretxea (1945-1956)

Alejandro Sanz Roldán (1957-1964)

Jesús Aurtenetxe Goitia (1965-1974)

José Uriarte Barrena (1969-1974)

Jesús Gorozika Loroño (1974-1977)

Anastaio Garai Lauzirika (1977-1979)

Santiago Rementeria Ganboa (1977-1987)

Luis María Mallona Madariaga (1987-1995)

José Luis Elgezabal Orbe (1995...)

En nuestro siglo, siguiendo el estilo de tiempos pasados, tenemos también un personaje importante e influyente. Me refiero al Habanero llamado Francisco Basterrechea (fueron padre e hijo).

Nuestro Francisco se fue a la Habana y reunió allí una fortuna importante. Vuelto a su pueblo construyó un hermoso palacio que hemos conocido y ha sido recientemente derruido.

El Habanero hijo, era Primo de varios Bastarretxeas que hemos conocido, entre ellos nuestro ínclito sacristán Jose y el cantor Pedro. Este era chófer del Habanero.

El Habanero hijo en su juventud se enamoró de Luisa Rekalde, pero los padres nunca vieron bien este noviazgo, por lo que le enviaron a la Habana, con esperanzas de frustrar el matrimonio. Este estuvo allí muchos años y mientras tanto Luisa se casó con Elorriaga y tuvo varios hijos e hijas.

Cuando volvió el habanero hijo, hacia el año 1945, Luisa era ya viuda.

Enfermó gravemente el habanero hijo y contrajo matrimonio en el hospital con Luisa a la que dejó la mayor parte de sus bienes de aquí y de Cuba. Ella decía que los bienes de Cuba se los arrebató Fidel Castro, pero lo decía sin mucho pesar.

El habanero desde principios de siglo tuvo mucha relación con el Ayuntamiento de Fruiz: el 1915 se derribaron la Tejería y la Taberna zarra de las que tanto hemos hablado en esta breve historia.

El habanero a cambio construyó el edificio actual que contiene Ayuntamiento y Taberna e hizo escuelas nuevas, no lejos de su Palacio.

La taberna perdió el monopolio ancestral y en 1940 hay cuatro tabernas que pertenecen a Angel Irigoién, Miguel Uriarte, Maria Cruz Lopategi y Jesus Legarreta y dos casas que dan comidas, de Francisca Uriarte y Pascuala Bátiz. Luego se creó Goiko Tarberna, Etxebarri, Sanjurdi y Txabola. Más reciente-

mente el Bar y Restaurante Azpuru. Hoy sólo quedan tres: Azpuru, Errikoia y Aurtenetxe.

Las escuelas eran bastante deficientes y hacia 1960 el Ayuntamiento pidió terreno a la Parroquia para construir nuevas y ésta le vendió el terreno al precio módico de 25.000 pesetas. Hoy se han concentrado las escuelas en Mungia y los locales construidos sirven para casa de Cultura. Hay además en este terreno un hermoso frontón.

La puerta especiosa de la parroquia, la elegante portada románica, fue descubierta hacia el año 1949 por el párroco Isidoro Iturbe. Estaba totalmente cubierta de cal hasta esta fecha. El Párroco vio algo dentro de la cal y hurgando con la navaja encontró semejante maravilla. Al parecer estaba cubierta de cal para evitar la propagación de la peste.

Lo más doloroso de nuestro siglo XX fue la guerra civil de 1936, a pesar de que hemos sido bastante afortunados porque nuestra iglesia no fue destruida, como lo fueron las de Mungia, Gatika y Maruri y la torre y en parte la iglesia de Gamiz.

Pero hemos visto durante días, poco antes del día de San Antonio de 1937, el monte Sollube humeando.

Recordemos con respeto los Fruiz'tarras muertos en la guerra:

Marcos Andikoetxea Lekerika (En Bizkargi).

Jesús Lotina Aurtenetxe (de tiro de fusil).

Agustín Uriarte Rementería (En Bizkargi).

Diego Andikoetxea Uriarte (En explosión de obús).

Toribio Sagasti Ibinarriaga (También de explosión de obús).

Jesús Lotina Gezuraga (por explosión de bomba de mano).

Juan Uriarte Mandalúniz (En Toledo en depósito de municiones por explosión).

Son estos siete los que aparecen en el libro de finados de la parroquia. Serían más.

Hacia el año 1954 vinieron unos enviados de Madrid a llevar los restos de difuntos de la guerra enterrados en Fruniz para

trasladarlos al Valle de los Caídos. Estaban sepultados cerca de la puerta de entrada al cementerio con una cruz de hierro como señal. Al desenterrar los restos apareció algún cinturón con hebilla de metal que tenía grabados los siete escudos de Euskalerria. Les advertí pero me dijeron que tenían orden de llevar restos de ambos bandos. Habrá en el Valle de los Caídos algún lugar reservado para Fruniz y para Sollube.

Antes de llegar la guerra a Fruniz, vino fugitivo el Conde de Motico Dr. Areilza que se hospedaba en la segunda planta de la casa de Bonifacio y Catalin Martinez. Se vio en peligro y pidió auxilio. Fue conducido al bando contrario por Miguel Uriarte y Pedro Bastarretxea.

La postguerra también fue dolorosa y varios fueron encarcelados, entre ellos Miguel Uriarte a quién el Dr. Areilza pudo sacar de allí bastante pronto.

Desde el año 1975 tenemos la democracia y los partidos que, como veremos, trabajan mucho en bien del pueblo.

Durante todo este siglo XX el suceso más transcendental ha sido el Concilio Vaticano II. Quizá los cambios más visibles han sido los referentes a las celebraciones y al templo parroquial.

Hubo que reformar el templo hacia 1963: Había cuatro retablos (Dolorosa, Rosario, San Sebastián y Salvador). Dejamos uno solo, el del Salvador, guardando imágenes de algún valor. En el altar central, del Salvador, se quitó la mesa del altar en que el sacerdote celebraba de espaldas al pueblo, y el ostensorio para exposición y el Sagrario se trasladó a la izquierda donde antes estuvo uno de los retablos.

Se hizo un pequeño altar nuevo y se colocó ante la asamblea parroquial y la sede algo elevada con dos asientos para acólitos.

El Bautisterio que estaba bajo el coro se trasladó al lugar que ocupaba el retablo de la izquierda para que el bautismo pueda celebrarse ante la Asamblea de fieles.

Se quitó el púlpito que estaba en el centro de la Iglesia junto a la pared. Queda algún resto en el suelo.

Toda esta obra la realizó Miguel Uriarte con su equipo.

Recientemente, en 1998 hemos quitado el zócalo de metro y medio de altura, dejando los pies de columna a la vista con un rodapié sin altura apenas. Se pintó la iglesia.

En la pared de la derecha apareció una hornacina con puerta. Para algo serviría en la antigüedad. La hemos dejado a la vista.

Hoy nos hemos acostumbrado a celebrar nuestras misas en la nueva forma, pero resultaría ridículo una celebración que antes del Concilio era la normal: El sacerdote de espaldas al pueblo, todo en latín, pasando el libro de izquierda a derecha, mientras otro predicaba o rezaba el rosario o cuando el sacerdote salía con el bonete en la mano para rezar los responsos en cada una de las sepulturas que llenaban más de la mitad de la iglesia, hacia atrás.

La misma ayuda económica que los feligreses daban a la iglesia era muy variopinta. Aparte de los responsos (que me resultaban lo más vergonzante), el día de Santa Agueda el sacristán tocaba la campana toda la tarde mientras algunos de su familia recogían huevos por todos los caseríos, el sacerdote iba a bendecir los campos por mayo y a cambio recogía huevos, se bendecía el trueno y una persona iba de casa en casa a recoger dinero llamado odeiena... Se suprimió todo eso y se estableció una cuota de ayuda a la parroquia. Siguen las misas que se ofrecen en entierros porque es costumbre entre familias y pueblos.

Hay que reconocer que sea de una forma o de otra, Fruniz siempre ha apoyado a la parroquia económicamente. Hoy la cuota es de 4.000 pesetas al año y la pagan prácticamente todas las familias. Muchos años más tarde esta cuota se ha establecido en todos los pueblos. Hacia 1990. Los únicos que no aportan en Mungialde son Larrauri y Meñaka.

Cuando fui nombrado para Fruniz, en 1954, del Obispado me dijeron que en Fruniz había que construir Casa Cural con dos viviendas, porque no está bien que Párroco tenga casa y no la tenga el Coadjutor.

Cuando llegué me hospedé en casa de Bonifacio y Katalin Martinez, en la misma casa que había ocupado en anterior D. Isidoro, que me dejó sus muebles. Les dije que pronto haríamos casa nueva, pero no esperaban que fuese pronto.

Vino a ocuparse de la limpieza y cocina Petra Legarreta-Etxebarria, de Oruene, que desde 1954 hasta 1967 (en Mungia) me atendió muy bien.

En 1956 encargué el proyecto y los planos al arquitecto Emilio Amann. Hablando con él modificamos un poco: Que no estuviera en paralelo con la iglesia, ya que era estilo muy distinto y que se elevara un poco para tener lugar para reuniones en el sótano. Así se hizo aunque esto encareció bastante por tener que labrar muchas más piedras de la pared que sustenta las viviendas. Miru Gorri de Maruri fue el cantero. En este local pusimos cine.

Amann sólo vino una vez durante toda la obra y tampoco cobró su trabajo, pero al menos semanalmente venía el aparejador de Mungia Jorge Ojinaga que hizo una gran labor.

Dimos en subasta la obra a Miguel Uriarte aunque también se presentó a la subasta en Bilbao un hermano de Luis Martínez, de la casa Aurtenetxe.

Trabajaron con Miguel los de su equipo: Jose de Etxebarri, Inas el tabernero, Jesus de Aurrekoetxe (Andeko), Kruz de Etxetxikerre y otros. Pusimos con alegría la primera piedra en la que metimos periódicos del día y monedas en uso.

La casa costó, más o menos, un millón de pesetas. ¿Cómo se financió?

Unas 200.000 pesetas nos dio el Instituto Nacional de la Vivienda para pagar en 20 años. Luego comenzó la venta de

terrenos que usaba el sacristán para sus servicios. A éste se le asignó sueldo. Vendimos un monte junto a Plakone, otro monte en el camino a Lomerike, Goikosoloa cerca de Esperanza a la izquierda de la carretera, la huerta a la derecha de la carretera hasta Esperanza, la mitad de la huerta que dividió el río desviado llamada Uresandi, la otra mitad quedó para huerta de la casa cural, al Ayuntamiento para escuelas sólo por 25.000 pesetas, parte de Erritarrialde y la siguiente parte de esta heredad a Anastasio Garai que construyó en ella su casa que la inauguramos con bendición y bersos improvisados en la sobremesa de la cena. Una parte de Esperantzalde para Panadería.

Quedaron varios trozos pequeños que hacia 1994 los reunimos. Dentro de esta concentración entraban dos parcelas, en Errrotabarrialde y Elexoste, que ahora han sido destinados por las Normas Subsidiarias para construir dos viviendas en cada una. Estamos en trámites y se han vendido por casi cuarenta millones de pesetas. Este fondo no se gastará y dará intereses para ayudar a la Parroquia.

Cuando salí de Fruniz, en 1965, la casa estaba totalmente pagada quedando sólo una pequeña parte que se debía al INV. Quedaba por pagar la obra de la iglesia parroquial que ascendía a 65.000 pesetas.

Las dos viviendas están hoy alquiladas, lo que es un buen ingreso para la parroquia.

En 1965 salí de Fruniz, pero tuve la suerte de volver viviendo en Mungia, el año 1986.

En este siglo se ha solucionado, al fin el problema de los uriosos que venía siendo doloroso desde la edad media, hacia el año 1300. Eran 41 familias con 205 personas que estaban dentro de Frúniz, pero civilmente pertenecían a Mungia: Andekobeitia, Lemorika, Batiz Goikoa, Andeko-Aurtenetxe, Andeko Aurrekoetxe, Etxetxikerra.

En 1995 a 30 de marzo por decisión de las Juntas Generales de Bizkaia, los Uri-auzos pasaban a ser Fruniz.

Hagamos un recorrido de ermitas y su situación en el siglo XX: La ermita de Crucifijo o humilladero ha sido donada por la parroquia al ayuntamiento mientras el Cementerio siga en ese lugar. El ayuntamiento se responsabiliza de sus arreglos. Es construida en 1647 y en 1732 hizo la balaustrada de madera Domingo Kafranga.

San Lorenzo de Andeko tiene un edificio que es construido en el siglo XVII. Se ha reparado recientemente, el año 2000, y ha costado la reparación tres millones y trabajo de vecinos. Ha realizado la obra Jon Aurtenetxe. Hemos recibido casi un millón de ayuda de la Diócesis y el resto ha corrido a cuenta de la parroquia. Se celebra una fiesta gratificante el día de San Lorenzo. Aparece en documentos que 1560 encargó unas misas en esta ermita, María Otxoa de Lomaika, en 1758 hizo ermita nueva Antonio Vega por 4825 reales.

San Miguel de Botiola tenía hasta hace unos 30 años pared en el centro que ha sido derribada para ampliar el templo. Ha habido misa dominical desde 1964 hasta 1998. Se vendió la antigua imagen de San Miguel por ser de difícil restauración. El edificio actual fue construido en 1758 por Antonio Vega por 3.175 reales. Hoy se conserva bien. San Lorenzo y San Miguel son ermitas des-orientadas, no miran al oriente como las demás.

En Mandaluniz, como lo hemos dicho, había una ermita de San Esteban. Hoy sólo queda una huerta que lleva este nombre. Se derribó en 1732. Un documento de 1758 dice que se derriba la ermita por orden del Obispado de Calahorra porque no disponía de rentas.

Dentro del municipio de Arrieta tenemos la ermita de los Santos Justo y Pastor (hoy San Luis), que hemos reparado este año por cuatro millones, aportando aproximadamente un

millón la Diócesis, un millón el Ayuntamiento de Arrieta y dos millones la parroquia de Fruiz. Tiene una campana que lleva la fecha de 1678 y es de las más antiguas de Bizkaia. Tenía un agujero por impacto de bala y una raja y se ha enviado a Alemania para repararla sin fundir.

Los servicios municipales eran muy escasos en la historia. No había ni siquiera casa ayuntamiento. Pero hoy vemos con gozo que estos servicios son numerosos y buenos: Casa Ayuntamiento con empleados, nuevas escuelas, hoy convertidas en Casa de la Cultura, Cementerio donado por la parroquia con nichos, Erriko Taberna, frontón, piscina, campo de fútbol, probadero, escuela de Barriada de Botiola convertida en servicio médico, puente más amplio en Lepotí...

Desde la democracia realiza una gran labor el Ayuntamiento de Fruniz y no podemos menos de recordar las realizaciones del tiempo de Alcaldía de Santiago Rementería.

En el campo de la Enseñanza no podemos olvidar la gran labor realizada por la Maestra María Rementería que mereció y le concedieron la Encomienda de Alfonso X el Sabio allá por los años de 1960. Recordemos también a Angel García que trabajó años junto con ella.

Hoy no tenemos escuela en el pueblo por haberse realizado la concentración en Mungia, pero nuestros jóvenes tienen acceso fácil desde la primaria hasta el título universitario que tienen muchos de ellos.

Recordamos los nombres de sacerdotes que hemos tenido en el siglo XX:

1900-1913: Felix Torrealdai y Jose Maria Barrena.

1913-1935: Luciano Omaetxebarria y su hermano Pedro y Marcelo Apraiz.

1935-1938: Felipe Gangoiti.

1938-1954: Isidoro Iturbe y Jose Domingo Arin.

1954-1965: Martín Olazar, Mariano Gandarias y Jabier Ozerinjauregi.

1965-1990: Jabier Ozerinjauregi.

1990-2001: En equipo desde Mungia: Martin Olazar, Esteban Orbe, Juanjo Erezkano, Txabi Ikobaltzeta.

Observaciones: Felipe Gangoiti fue desterrado a Asturias como otros 500 sacerdotes a distintos sitios. Jose Domingo Arin vino desterrado de Gipuzkoa y a su hermano sacerdote le fusilaron los “nacionales”, Martín Olazar salió de Fruniz castigado por el Obispo Pablo Gúrpide por haber estado en el juicio a un sacerdote en Donosti. Jabier Ozerinjauregi vino de Berriz castigado y por castigo nunca se le dio nombramiento de párroco de Fruniz, sino encargado.

Bien se ve que la postguerra fue muy difícil para los sacerdotes.

Jabier Ozerinjauregi murió en Fruniz en 1990.

No olvidemos que tenemos tres Obispos de Fruniz: Mons. Juan María Uriarte, de San Sebastián, Mons. Celestino Orbe, de Yurimaguas (Perú) y Mons. Iñaki Mallona, de Arecibo (Puerto Rico).

(Idazketa au 2001-08-30 amaitu da)

IDAZLEAREN IDAZ-LANAK / Obras del mismo autor

- 1.- Mungialde, Bermeo ta Ondarroa'ko Abostegia (Argitaratu barik).
La fonética vasca de Mungialde, Bermeo y Ondárroa (Inédita).
- 2.- Len, orain eta beti (elebarria argitaratu barik).
- 3.- Iruarrizaga'tar Luis aitaren bizitza.
Vida del músico P. Luis Iruarrizaga.
- 4.- Nazaret'eko Jesus.
- 5.- Erri bat bidean.
- 6.- Gu, gure mundua ta gure fedea.
- 7.- Zu, Martin! (Gomutakiak).
¡Oye, Martin! (memorias).
- 8.- Mungia ta mungiarak.
Mungia, su tierra y sus hombres.
- 9.- Eduardo Urzelai, erri-gizona
- 10.- José María Arregi, erri-gizona
- 11.- Fruitzarrak len eta orain
Fruniz: Su tierra y sus hombres en la historia
- 12.- Aldizkarietan idaz-lanak.
Artículos en revistas.

